



ARGIA

**HERRITARREN SOSEN
% 10 ZOR PUBLIKOA
KITATZERA DOA
NAFARROAN**

**AFROKOLONBIARRAK
BAKEAK
EZKUTATZEN DUEN
INDARKERIAREN
LEKUKO**

**INDEPENDENTISMO
EZKERTIARRA
BIRPENTSATZEN ARI
DIRA SIZILIAN**

**NOLA ULERTZEN DUGU
ZAHARREN ZAINITZA?**



Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa 2018

Aurten, lanak aurkezteko bi era dituzu: idazlan edo bideo bidez; zuk aukeratu!

Idazlan bidez, oinarriak

ikusi eta lanak bidaltzeko, sartu:

Berria.eus/mendietabidaiakronika2018

Bideo bidez, oinarriak:

- Aurkezten diren bideoek originalak eta argitaragabeak izan behar dute.
- Bideo bakoitzak gutxienez **5** minutu eta gehienez **20** minutu izan beharko du.
- Bideoek euskarazkoak izan beharko dute. Euskaraz ez den edukirik balego, euskarazko azpidatziak izan beharko ditu.
- Bideoak online sistema bidez (tori.eus edo wettransfer.com) bidali behar dira bideoak@berria.eus helbidera, **azaroaren 11 baino lehen**. Gai: Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa.
- Bideoarekin batera, hauek ere bidali beharko dizkiguzue:
 - Bideoaren fotograma bat .jpeg formatuan
 - Izenburua
 - Sinopsia edo laburpena
 - Egileen izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa.
 - Baloratuko da:
 - Kalitate artistikoa
 - Gidoiaren originaltasuna
 - Edizio lanketa
 - Jasotako bideoak **BERRI**Aren Youtubeko kanalean jarriko dira, eta **BERRI**Aren webgunean publikatuko. Bideoa egin duenak izango du bidaltako lanaren edukia erantzulea.
 - **BERRI**AK eskumena izango du lanak lehiaketatik kanpo uzteko; lehiaketatik kanpo utzi ahal izango ditu mezu iraingarriak, giza eskubideak urratzen dituztenak edo sexistak darabiltzatzen bideoak.
 - Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia betez, parte hartzaileari jakinarazi nahi zaio bere datu pertsonalak **EUSKAL EDITOREA SL** enpresaren tratamendu sistemetan jasoko direla, horixe baita **Tratamenduaren Erantzulea**. Hala, parte hartutako lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira, soilik.

SARIA-Idazlana:

Irabazlearentzat, Mendiak eta Hiriak mendi gidari elkartearen oparia, lagun batentzat.

ZERMATT INGURUKO GOI MENDIKO ZEHARKALDIA

Breithorn (4.165 m) • Castor (4.226 m) • Parrotzspitze (4.436 m) • Zornsteinspitze (4.563 m)

EGITARAUA:

1. Alpeetarako bidaia. Norbere autoan. Gaba Saas Grund herrian, Suitza. Mantenu erdia.
2. Theodul aterpea (3.200 m). Saas Grund – Tasch, gure autoan, Tasch – Zermatt, taxi. Teleferikoa Zermatt – Trockener Stegg (2.700 m), Trockener / Rifugio Theodul (3.200 m), Theodul glaziarrean barna, 1,30 ordu. Mantenu erdia.
3. Breithorn (4.165 m eta 4.160 m), Theodul / Breithorn lepoa, 1,30 ordu. Breithorn lepoa / Breithorn (4.165 m eta 4.160 m), bi gailurren arteko zeharkaldia eginez, Guida Val d'Ayas aterpera (3.200 m), Mantenu erdia.
4. Castor (4.226 m), Val d'Ayas / Castor (4.226 m), 4 ordu. Castor gailurra / Quintino Sella aterpea (3.400 m). Bi ordu. Mantenu erdia.
5. Parrotzspitze (4.436 m), Quintino Sella aterpea / Liskjoch lepoa / Ludwigshöhe (4.341 m), Parrotzspitze (4.436 m) gailurak. Punta Grifetti – 4.556 metroa (goko gara, non Margerita aterpea dagoen, Alpeetako aterpenik altuena –), Mantenu erdia.
6. Zornsteinspitze (4.563 m), Margerita / Zornsteinspitze (4.563 m), ordu bat. Greengletscher glaziarretik behera egingo dugu, Mte Rosa aterperaino (2.800 m), Mantenu erdia.
7. Zermatt eta Saas Grunderako itzulera. Mte Rosa aterpea / Greengletscher glaziarra / Rottenboden tren geltokirako igoera. Trenz Zermattera, Zermatt – Tasch – Saas Grund
8. Etxerako itzulera

SARIA-Bideoa:

Irabazlearentzat, ATXASPI HOTELEAN **Relax** asteburu-pasa, bi lagunentzat.

Parte hartzaile guztien artean, APALATEGI KIROLAK dendan gastatzeko 100 euroko 3 bonu.

BABESLEAK:



ATXASPIHOTELA



APALATEGUI
DEPORTESAPALATEGUI.COM

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Gaizki erranka
Ez hanka ez buru!
- IRITZIAK**
- 15 Estixu Garai Artetxe
- 16 Eneko Gorri
- 17 Ana Mendia
Itxaro Borda
- 18 Sonia González



Parlamentu Sozialak argi du: zilegia ez den zorra ez da ordaindu behar.

EUSKAL HERRIA IRRATIA

- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIAKO AZOKA
- 43 ARGIAKO KOMUNITATEA
- 44 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENEKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
MELANIE SERRANO
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 10 | J. Kim Wright: "Mundu mailako eredu da Euskal Herria Zuzenbide Integratiboari dagokionean" / Miel A. Elustondo
- 20 | Zahartzaroko mendekotasunak: Zaintza birpentsatuko bagenu? / Z. Oleaga
- 26 | Francia Márquez: "Ez bagaituzte balaz hiltzen, pozoinduta hilko gaituzte" / Amaia Lekunberri Ansola
- 28 | Alina Rocío Blanco Ramos euskaraz, migratzaileez eta identitateaz / Ainhoa Bretos
- 30 | Antudo: Siziliaren independentzia birpentsatzen / A. Mimentza
- 34 | Herritarren 1,2 milioi euro bankuen eskuetara doaz egunero Nafarroan / Xabier Letona
- 37 | Kurdistan: Kobaneko Legebiltzarreko presidentearekin elkarrizketa / Aitor Aspuru Saez
- 45 | Lau teilatu: Hitzeman zorion baten melodia / Itxaro Borda

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE




**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estixu Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Gonzalez de San Pedro, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Nahia Ibarzabal, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetzak: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus

Kalea erabiltzen duenarena da

Okupazioa izan da botere publikoen ezinikusiagatik, sarri, eta interes ekonomikoengatik, gehienetan, herritarrek eskura izan duten aukera bakarra eskubideak praktikara eramateko. Nola ulertu bestela, 35 urtez uhinak okupatu dituen irratia bat izatea, ezpada multinazionalen menpeko komunikabideen bertsio monokromatikoarengatik? Ala Espainiako Estatuko auzo okupatu eta autogestionaturik handiena hemen izatea, "etxebizitza duina + gaztea = ameskeria" ekuazioa egia ez balitz? Bada, erakunde publikoei gustatu ala ez, Gasteizen bada askotariko herritar mugimendu osasuntsu bat, espazio publikoa erabiltzeko gogoz dagoena. Eta horren aurrean, adierazpen askatasunaren mugen inguruko eztabaidan bezalaxe, debekuak alferrikakoak dira. Gasteiz okupatu zuten orduan. Eta egun, are arrazoi eta gogo handiagoz, okupatu egin dute.

Argazkia: Gorka Julio · Testua: Axier Lopez





“Gogoratzen euskaraz egiteagatik isuna iritsiko zitzaidala esan zidatela? Ba Juan Mari Aburtok gezurretan nabilela eta arazoa nire jarrera ‘matxista’ izan zela esan du, sutzuki, Osoko Bilkuran (...) Ezin mingarriagoa! Erasotua erasotzaile agerrarazi eta gainera, emakumeen egoera erabilta. Zitala da. Hobe luke udalak behar bezalako genero-politikak ezarriko balitu”

@azarramendi

“Hizkuntza eskubide urraketa honen aurrean Udalaren erantzuna erabat lotsagarria izan da. Agerian euskal hiztunok Bilbon dugun babesgabetasuna”

@albfatu

“Udalak erakutsi du euskaldunonganako nagusikeria, korporatibismoa, bazterkeria, klasismoa eta harrokeria. Gezurra ari du”

@ZEtxeburua



Alternatiba Itzulia: erresistentzia eta eraikuntzarako deia

Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

Aldaketa klimatikoaren saihesteko bideak marrazteko eta justizia klimatikoaren alde lan egiteko, 15.000 herritar batu dira Baiona Ttipian, hausnartzeko, alternatibak deskubritzeko zein garatzeko, eta nola ez, benetako aldaketak exijitzeko agintariei.

Baionan eman zaio bukaera lau hilabete iraun duen Alternatiba itzuliari. 5.800 kilometro egin dituzte bizikletaz hamarnaka herritarrek, sistema kapitalistari begira gauzatu alternatiben sarea sendotzeko. Alternatiben saretzeaz eta biderkatzeaz gain, lobby eta haien mesedera hartu politiken aurkako erresistentzia sendotzeko deia luzatu dute oholtza gainetik: “Jardun behar dugu masiboki, maila guztietan, gure jendartea berrantolatzeko!”. Egin beharrekoa argi dute:

“Erresistentzian egon eta eraiki, blokeatu eta asmatu, desikasi eta berrikasi, beti ondokoa zainduz”. Erresistentzia ez-bortitzaren bidetik ikusten dute borroka. Baina oroz gainetik, denbora kontatu bat dugu, eta ezer egin ezean, berantegi izanen da guztientzat.

Hego Koreatik zuzenean hitz egin du ere Valérie Masson-Delmotte klimatologoak itxaropen puntu batekin: Nazio Batuen Erakundeko estatu guztiek onartu dute Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldearen txostena. 6.000 ikerketa zientifikotan oinarriturik, 1,5 graduko beroketa baten ondorioak plazaratzeaz gain, beroketa maila hau saihesteko aukerak zerrendatzen ditu dokumentuak. Bat egitea ez denez aski, benetako aldaketak ondorioztatu beharko ditu onarpenak. Abenduaren 2tik 14ra burutuko dute COP 24 gailurra Polonian eta orduan ageriko da benetako nahikeria politikoa.

“Hartza ezartzearen kontra eginen dut, baita presondegira joan behar badut ere”

JEAN LASSALLE, IPAR EUSKAL HERRIKO BARNEALDEKO ETA BIARNOKO DIPUTATUA

Frantziako Biodibertsitate zuzendaritzak Zuberoan gaindiko mendietan Esloveniatik ekarritako hartza askatzeak polemika eragin du. Nafarroako Gobernuak artzain eta abeltzaintzat izan ditzakeen ondorioez kezka agertu eta “informazio eskasa” salatu du. Santa Grazi eta Larraineko herrietan berriz, hartzaren ekartzearen aurkako mobilizazioak egin dituzte udaldian, abeltzaintza sektorea eta tokian tokiko hautetsi anitz neurri horren kontra baitaude. **2018-10-05**



GAIZKI ERRANKA

Ortzirale beltzak



Santi Leoné
@ororostorm

Urriak 1: Kataluniako erreferenduma-ren urteurrenean, Espainiako telebistak zehaztu digu zenbat enpresak egin duten alde prozesua martxan jarri zenetik (ez digu erran, ordea, denboraldi berean baten bat finkatu ote den). Kontuak, bistan da, gutienez bi irakurketa ditu: zeinen kaltegarria izan den eta den independentismoa ekonomiarako, edo zeinen lotsagabe saiatu den botere ekonomikoa jendearen erabaki politikoak baldintzatzen.

Albiste berean, erreferenduma bakarrik senti ez zedin, ilegal izenondoa paratu diote ondoan solasa ahoskatu duten aldioro. Adjektiboak balio dezake independentismoa zeinen arduragabe jokatu duen erakusteko, edo Espainiako Gobernuak erreferenduma legez kanpo uzteko egin dituen eginahal guziak salatzen. Enpresek bezala, puntu honetan ere lehen interpretazio aldera lerratzen zen albiste, bigarre-na pentsaezin bihurtzeraino.

Haserre nago -tira, mintzatzeko manera bat da- albistean manipulazioa ikusten dudalako, edo nirea ez den ikuspuntu -zilegibat eman dutelako? Hobe langileei berei galdegitea: zenbait hilabetez, Espainiako telebistako langileak beltzez jantzita agertzen ziren ortziraleko, hedabide publikoak sufritzen zuen manipulazioa salatzen. Protesta hori akitu zen; alta bada, nire begi trebatu gabeetan ez da diferentzia handirik PPren tirania jasanezinaren hankapean ematen zen informazioaren eta oraingo askatasunari esker ematen denaren artean. Ez bederen Katalunian.

Noraino dira manipulatu duen hedabide bateko langileak manipulazio horren erantzule? Noraino adierazi behar diegu elkartasuna, protesta egiten dutelarik? Ez dakit. Baina zalantzak argitu bitartean, barka biezadate Espainiako telebistako kazetariak ortziraleroko duintasun profesional minduaren erakustaldi hartan itxurakeria pittin bat ikusten badut. ■



ANALISIA

Alkate izatea negozio ona da



Axier Lopez
@axierL

Soldata publikoen neurriak beti eragin izan du eztabaida. “Asko al da herriko alkateak kobratzen duena?”, “gurea bezalako herri txiki batean hainbeste ordaindupeko zinegotzi, zertarako?”, “zer da soldata duina?”... hauteskudeen osteko ohiko kezka izatean dira. Eta azken urteotan ustelkeria politikoa herri kirol bilakatu delarik, publikoarekiko begirada zorroztu zaigu denoi. Bada, aste honetan Espainiako Lurralde Politikako eta Administrazio Publikoetako Ministerioak alkateen soldata publikoak argitaratu ditu. Eta horrek, jakina, zeresana eragin du. Gurean, argazki osoa izateko Ipar Euskal Herriko datuak eta Nafarroakoak –harritzekoa da, baina Espainiako Gobernuaren datuetan ez da Nafarroa azaltzen– beharko genituzke, baina EAEko alkateen soldatatzarrek berretsi dute politikagintza instituzionala negozio borobila izaten jarraitzen duela. Madril eta Bartzelonako alkateen ostean, Bilboko Juan Mari Aburto da diru gehien zakuratzten duen alkatea: 91.318€. Ondoren daude Donostiako Eneko Goia (83.870€), Gasteizko Gorka Urtaran (81.860€), eta segidan, hiriburu batekoa ez den lehen alkatea, Getxoko Imanol Landa (7. postuan, 79.151€). Zerrendako goiko postuetan ondokoak ere badaude: Basauriko Joseba Andoni Busquet (15. lekuan), Barakaldoko Amaia del Campo (17.), Erandioko Joseba Goikouria (18.), Durangoko Aitziber Irigoras (20.) Galdakaoko Ibon Uribe (22.), Mungiako Ager Izagirre (23.). Horiek denek urtero

72.500 euro inguru poltsikoratzen dituzte, Espainiako ministroen pare. Zerrendan gertu dituzte, 68.000 euro inguruko soldatarekin, Gernika (38.), Leioa (39.), Beasain (40.) edota Bergarako (41.) alkateak. Lehen postuko gehienak Bizkaikoak dira, eta EAJkoa ez den lehen alkatea aurkitzeko 67. posturaino joan behar dugu: PSEko Miguel del Toyos eibartarra. Nahiz eta, egiari zor, zerrendan ez direnez alkate guztiak agertzen, 74.000 euro irabazten dituen Portugaleteko PSEko Mikel Torres aipatu beharko genuke, berbarako.

Datuoi eta norberaren nominari begiratu azkarra eman ostean, galderak arrapaladan etortzen zaizkigu. 3.800 biztanle eskas dituen Zestoako alkateak (EAJ)ko Josetxo Mendizabal) urtero 53.234 euro (%47 igo zuen) irabazteak zentzurik al du? Langabezia %20koa eta prekarietatea zeharo zabaldua dituen Barakaldo moduko herri batean, arazo horiek konpontzeko jarritako agintariak zergatik jaso behar du horrelako dirutza herritarren poltsikotik? Herritarren artean diru gehien jasotzen dutenen klub selektoan politikari boteredunak egoteak demokraziari on ala kalte egiten dio? Hauteskudeen atarian denon ongizatea xede dutela aho bete hortz errepikatzen duten horien eta herritarren arteko soldata arrakala hain agerikoa izateak “politikarekiko” interesa gutxiagotu ala handitu egiten du? Alkatearen soldata igotzea inongo alderdiren hauteskunde-programatan azaltzen ez bada ere, zerrendako alkate horiek guztiek hartu zuten lehen erabakia horixe bera izatea ohikotzat hartu behar al dugu? Eta bereziki, alkateak alkatearen soldata erabakitzea, herritarren inolako kontrolrik gabe, demokratikoa al da?

EKONOMIAREN TALAIAN

Eraso kapitalista zerga erreformaren kontra



Juan Mari Arregi

Moncloara iritsi zenetik PSOEren Espainiako Gobernuak esan du enpresa eta fortuna handiei eragin go dien erreforma fiskala egin nahi duela. “Tobin” tasa edo antzeko zergak ekarriko lituzke erreforma horrek eta Sicav kapital aldatzeko inbertsio-sozietateen egoera fiskala ere aldatuko luke. Tobin tasa finantza transakzioei eta Sicav horiei jarritako zerga litzateke, azkeneko horiek baitira ondasun handia dutenek euren aurrezkiak bideratzeko erabiltzen duten tresna gogokoena. Erreforma horrekin, pentsio publikoak sostengatzea errazagoa litzateke. Izan ere, pentsioak blindatzeko mobilizazio handiak izaten ari dira Espainiako Estatuan, bereziki Hego Euskal Herrian.

Baina Espainiako Gobernuaren asmoa jadanik kapitalismoaren jomugan dago, hura ordezkatzten duten burtsako enpresa eta bankuek erasoaldia hasi dute erreforma eragozteko. Duela egun gutxi CNMV Balore Merkatuaren Batzorde Nazionaleko presidentea Tobin tasaren eta Sicaven gaineko zergak aldatzearen kontra azaldu zen. Bere argudioa: “Halako zerga batek gure merkatuaren lehiakortasuna kalte-tuko luke”, eta gainera, Sicavak “espainiar finantza sektorerako negozio garrantzitsua dira”. Hala, zerga sistema aldatzeko saiakera eginez gero, “kapitala beste merkatu batzuetara joango litzateke”.

Bistan da erasoaldi kapitalistak egungo espainiar gobernu geldiarazi nahi duela bankuetako eta enpresetako bere kide pribilegiatuen interesak eta negozioak babesteko. Hain dira “patriotak”, etekin handiagoak pilatzen segitu besterik ez dutela nahi. Haiek ez dute pentsio publikorik behar, jende gehienak bezala. PSOEren Gobernuak ezin du amarru horretan erori.



JAIZKI FONTANEDA / FOKU

Legebiltzarrera iritsi den lehen herri-ekimen legegilea

GASTEIZ. Irudian, Sabin Zubiri, Zubiak Eraikiz plataforma herritarreko kidea. Herri-ekimen legegile bat Eusko Legebiltzarrera iritsi den lehen aldia izan da. 17.000 sinadurak babestuta (10.000 nahikoa dira egitasmoa aurkezteko), eskola-segregazioa gainditzeko lege proposamena egin du plataformak, baina ez da tramitera onartu, EAJ, PSE eta PPK kontra bozkatu dutelako. Plataformaren esanetan, herritarrei aukera zabaldu, eta Legebiltzarrera iristen den lehen proposamenari eztabaidaren ateak ixtea ez da jarrera “oso eredugarria”.

Etxebizitza Legea eta etxe hutsen desjabetzea

Argia

EAEko Etxebizitza Lege berria aurrerapausoa da orain arteko egoerarekin konparatuta, erakundeei aukera handiagoak ematen dizkielako herritarren etxebizitza-eskubidea bermatzeko, baina ez, nahiz eta hainbat hedabidek nabarmendu, Eusko Jaurlaritzak ez da hasiko etxe hutsak desjabetzen.

Kanon bat

Legeak dio etxe hutsen jabeek kanon bat ezarri ahal izango zaiela (10 euro metro koadroko), beraien esku dauden pisuak alokairuan jartzera bultzatzeko. Alokatzera ere derrihortu ahalko litzaioke jabeak, premia handia dagoen lekuetan.

Desjabetzeaz

Instituzioek etxe hutsak desjabetzeko aukera ematen dela egia da, baina posibilitate hori gertatzeko, baldintza oso bereziak eman beharko liriateke. Haste-ko, inor bizi ez den etxe bat zer den definitzerakoan, salbuespen ugari dagoen aurrekusten dira.

Hiriburuak

Desjabetu ahal izateko, gune konkretu batean etxebizitzaren “beharrizan sozial” berezia egotea ere eskatzen du legeak. Hala, aukera hori inon egotekotan Gasteizen, Bilbon eta Donostian legoke, etxebizitza premia asegabe handiena hor baitago.

IHESLARIAK



70

inguru dira munduan zehar bizi diren euskal iheslariak; horietatik 14 deportazio egoeran daude Kuba, Venezuela, Cabo Verde eta Sao Tomen, Kalera Kalerak azaldu duenez.

2.500

pertsona izan dira arrazoi politiko errepresiboengatik ihes egin duten euskaldunak 60ko hamarkadatik hona.



LANBIDEREN BIKTIMA

Lanbidek diru-laguntzak kendu dizkio NANA galdu zuen emakume bati. Pasaportea, polizia-ziurtagiria eta NANaren kopia aurkeztuta ere, Lanbidek ez zizkion paperak onartu. Bazterketa sozial egoera larrian dago emakumea eta bere familia.



LAN BALDINTZAK

AHTko obretan ari zela, azpikontrataturiko langile bat hil da Zizurkilan. Egun gutxiaren buruan obra horretan zendutako bigarren langilea da. Bestalde, Jose Luis Landeta Audioko behargina hil osteko omenaldian, Landeta amiantoak hil duela salatu dute herrikideek.



ARALARKO PISTA

Aralarko Natur Parkeko pista berri baten eraikuntza salatu dute Eguzki eta Landarlan elkarteek. Eniriotik Igaratzara doan pistari dagokio, Enirio Aralar Mankomunitateak bide baten egokitzapen gisa aurkeztutako egitasmoa.

«Zuzenbide Integratiboari dagokionean mundu mailako eredu da Euskal Herria»

J. Kim Wright

Abokatu errebelde (eta) legala

Abokatu da aspaldixko. 1999an, lanbidea aldatzeko lanean ari zela esan zuen: abokatuek osagile eta bakegile izan behar zutela. Barre egin zioten. Hurrena, berriz esan zuen, abokatuz betetako aretoan bazkaltzen ari zirela. Jaiki eta ondoko mahaira joan zitzaizkion kideak ihesi. Bakarrik utzi zuten. Hamar urte geroago, AEBetako abokatuen elkarteak saritu zuen, aitzindari eta bidegile aitortuz.

Testua: Miel A. Elustondo

Argazkiak: Zaldi Ero

AEBetako abokatuen elkarte ABAk Legezko Errebelde izendatu zintuen 2009an, bidegile, inondik ere. Bestelako Zuzenbide bat duzu aldarri: Zuzenbide Integratiboa.

Bidea egiten ari den mugimendua da. Ez da, besterik gabe, pertsona bakar baten gorabehera, ezta gauzak egiteko modu bakar bat ere. Abokatuon lanean aldaketa dakarren mugimendua da, justizia eta bakea egiteko modu kontziente, humanistiko eta inklusiboagoa. Ahots bakar batek ez dauka aski indar munduan batean eta bestean lanean ari diren abokatuen nahia biltzeko, ezin du izan haien oihu ozenaren oihartzuna. Hala ere, gauza bera esaten ari gara denok: "Hau bestelakoa izan liteke!". Legezko Errebelde izendapena ekarri duzu zure galderara, eta egia esan ohore handia izan nuen. Handik pixka batera, berriz, liburua idazteko eskatu zidan

ABAk. Ikusten eta ikasten ari nintzena konta nezan nahi zuten. Eta egin nuen: *Lawyers as Peacemakers* [Abokatuak Bakegile] idatzi nuen 2010ean, eta *best seller*-a izan zen. Ondoren, ildo beretik beste bat idazteko eskatu zidaten, eta *Lawyers as Changemakers, The Global Integrative Law Movement* [Abokatuak Aldaketa eragile, Mundu mailako Zuzenbide Integratibo Mugimendua] idatzi nuen 2016an. Eta *best seller*-en zerrendan izan zen hura ere.

Bide berria ireki duzu Zuzenbidean, ohi-ko bidea egiten hasi zinen.

1989an burutu nituen ikasketak. Abokatu lana egin nuen, baina ez zitzaidan hura gustatu. Negargarria iruditzen zitzaidan abokatu lana. Gero, Chicagoko abokatu batekin topo egin nuen. Forrest Bayard zen. Berak bestelako abokatutza eredu bat zerabilen buruan: bakezkoak

J. Kim Wright

Florida, AEB, 1958

Abokatu ikasketak egin, lanbide modua gustatu ez, lanbide molde hura utzi eta bestelako bideetan barna abiatu zen 1990eko hamarkadaren erdialdiera, Zuzenbideaz gogoetan. 1999an, Abokatu Holistikoen Nazioarteko Aliantzaren biltzarrean parte hartu eta ikuspegi berriak lantzeari lotu zitzaion. Harrezkero, diren eta ez diren elkarte, elkargo eta erakundeetako kide da, baita fundatzaile ere, Zuzenbide Integratiboaren arloan; Elkarlan zuzenbidea, gurean. Aspaldixko, munduan barna dabil, Zuzenbide molde berriari aitzindari izan litezkeenekin lanean. Helburu horrexek ekarri zuen irailan Euskal Herria.





Kim Wright Euskal Herrian ibili berri da. Ezkerrean ditu Alex Carrascosa eta Mari Jose Anitua.

egitea, elkarlana, duintasuna... Horrelakoak aipatu zizkidan. Bestelako biderik bazitekeela erakutsi zidan. Ordu arte, uste nuen ez zitzaidala abokatutza gustatzen, baina neure kontua besterik ez zela, bakarrik nengoela pentsatzen nuen. Baina oker nengoen, ez nintzen bakarra, nonbait. Forrestek bizia aldatu zidan, eta abokatutza gauzatzeko modua bera ere bai. Nire egitekoa haren urratsei segitzea izan da, arrastoari segitzea, neure bidea eginez. Ondoren, nik ikusia gainerakoei jakinaraztea izan da nire lana.

Zuzenbide Integratiboaren onurak zabal-tzen, aspaldi.

Abokatua naiz, gure lanbidean sistema-aldaketak helburu dituen, hau da, balio eta eredu jakin batzuk ezar daitez-nahi duena: Zuzenbide Integratiboa. Horretan ematen dut oraingo bizitza,

nire irritsari segika bizi naiz munduan batetik bestera, balio jakin batzuen atzetik. Nortara edo hartara, gure lanbidea praktikatzeko modua aldatzen ari diren abokatuen jarraitzaile naiz. Gauzak ohi ez bezala egiten ari diren abokatuek zomorrotan dira lanbide bereko kideen begietara, nahiz egiten ari direna aurrerakoa, sinestezina eta ikaragarria izan. Tira, beharbada, horregatik jotzen dituzte zomorrotan ararotzat. Bakarrik jardun ordez, taldean jardunez gero, lana askozaz ere errazagoa da. Aurrera egiteko adorea eta kementa ematen dizkizu taldeak.

Nola hasi zinen munduan barrena zure egia esatera ekarri zaituen bidean?

1999an ikastaro bat egin nuen. Lan ezinezko baten gainean pentsatu behar genuen, eta ezinezko hura egiteko bidea bilatu eta aurkitu behar genuen.

Aditua, ikasten

“Bai, aditua naiz Zuzenbide Integratiboan, baina ikasten ari naiz oraindik. Batzuetan, alde berri bat ikusten diot mugimenduari. Aurkezpenak egiten ditut, jendarte ezberdinen aurrean jarduten dut, nork bere balio eta trebetasunak dituela, eta beraz, oso praktikoa da, asko irakasten baitit jendeak”

Elefantea eta piezak

“Astelehenean, Merkataritza zuzenbidean ari diren abokatuekin hitz egiten egon ninteke, kontratu kontzienteen gainean. Asteartean, defentsa-abokatuekin, erreparaziozko justiziari buruz. Asteazkenean, familia-abokatuekin, adiskidetasunezko dibortzioen gainean. Mindfulness ikasgaiak eman izan ditut abokatuen aurrean, eta justizia sozialari buruz ere jardunda nago unibertsitate irakasleekin. Elefanteaz hizketan hasten naiz beti, baina dena delako jendarteak gehien dakien aldetik”

Nik, Zuzenbidea aldatzeko proiektua asmatu nuen, sistema mailako aldaketa helburu zuena: abokatuak bakegile bihurtu nituen, auzi konpontzaile, gatazka bideratzaile eta beren inguruko giza taldeko aldakuntzaren eragile. Izan ere, uste baino indar handiagoa dute abokatuak. *Influencer*-ak esaten da oraingo egunean, eta irudi luke nor-nahi dela *influencer*, baina egiatan abokatuak dituzu *influencer* handienak. Bateko eta besteko komunitate, lantegi, konpainia, gobernu eta erakundeetan dituzu. Zernahi paper sinatzen duzula ere, zernahi kontratu, itun, akordio, dibortzio nahiz etxe erosketa eta salmenta... abokatuak behar duzu. Nik, hortaz, proiektu “ezinezko” hura gauzatu nuen, pentsatuz porrot egiten banuen ere, mundua leku hobea izango zela nik lan hura egin ondoren. Horrelaxe hasi nintzen.

Munduan barrena zabiltzala, jendea bildu duzu zure bidera.

Bat egin dugula esango nuke. Hasieran, artean munduan barrena ibiltzen hasi baino lehen, hainbat hitzaldi, ekitaldi eta askotariko jardunaldietan izan nintzen. Batzuetan, entzule; besteetan, parte-hartzaile. Haietan, nahi beste gai jorratzen zirela ikusi nuen. Batean, Zuzenbide holistikoa; bestean, jurisprudentzia terapeutikoa. Han, Zuzenbidea eta aferak konpontzeko modu sortzaile; hemen, aktibismoa. Hurrengoan, Zuzenbide-hezkuntza humanizatzeaz ari ziren, edo komunikazio ez-biolentoaz... Hala ere, toki guztietan, jendea hizketan hasten zenean, kezka bertsuak atzematen nituen, lanbidea beste era batera gauzatzeko nahia, asmoa, gogo... Guztiarekin ere, ordea, bakarrik ikusten nuen neure burua saio haietan guztietan, beste inor ez zelako ari, ni bezala, era guztietako topaketetan parte hartzen. Jardunaldietako bakoitza txoko ezberdin bat zen, txokoen artean ez zen loturarik, inork ez zekien zertan ziren ondoko txokoa, ondoko jardunaldi edo topaketan.

Kezka bertsuak biltzera egin zenuen zuk.

Nolabait esanda, bai. Batean eta bestean aditzen ari nintzena bildu nuen, hau da, batera ekarri nituen bilkura guztietan behin eta berriz eta askotan aipatzen ziren kezka. Laster, Zuzenbide arloan ari zen jendeari irakasten ikusi nuen neure burua, bide berriak urratzen erdugarri izan zitezkeenak identifikatzen, eta Zuzenbidearen garatzeari lagunduko zioten bideak bilatzen eta aurkitzen. Horrela abiatu nintzen. Baina Zuzenbidea eraldatzea ez zen, berez, lanbidea, ez zuen ordainsaririk. Bizi nintzen etxea utzi nuen, utzi nuen bulegoa ere, eta errepidera egin nuen. “Hasteko, hiru hilabeterako izango da”, pentsatu nuen. Hamazazpi urte joan dira harrezkero. Eta, orduetik hona, inoizko abokaturik berritzaileenak, adoretuenak, egiazkoenak ezagutu ditut munduan. Bideo-kamerari bat ondoan hartu eta lan berritzailea egiten ari ziren askorekin mintzatu nintzen. 100 lagun ere elkarriketatu nituen. Tarte labur batzuk hautatu eta dokumentala egitea pentsatu nuen, baina laster ohartu nintzen lekukotasunak indar handikoak zirela, oso, eta web batean jarri nituen [Cutting Edge Law YouTube channel].



5.000 arima

“Ipar Carolinako (AEB) herri txiki batean ari nintzen, Zuzenbidea eraldatzeko gogoz. Herriko epaileari joan nintzaion, esanez bertako abokaturik arraroena izateko bokazioa nuela, bestela egin nahi nituela gauzak. Eta epailetara baino lehen, kontrako bi aldeak mahai-inguruan bildu, hitz egiten jarri eta adostasuna bilatzen saiatzen hasi ohi nintzen, hainbat teknika eta terapia erabiliz. Sekulako arrakasta izan nuen. 1995 zen urtea, eta Ipar Carolinako lehen webgunea ere abiarazi nuen garai hartan. Milaka bisitari ditut web-ean orain”

Zer da Zuzenbide Integratiboa?

Azaltzeko eskatzen didatenean, istorio bat kontatzen hasten naiz, itsuen eta elefantearen kontu zaharra. Ba omen ziren sei itsu, eta bizian estreinako, topo egin zuten elefante batekin. Bakoitzak elefantearen atal ezberdina ukitu zuen. Batak, hanka ukitu eta esan zuen: “Arbola bat ematen du”. Besteak, sudurra ukitu zion, esanez: “Sugearen eitea du”. Buztana ukitu duenak, soka itxura ematen dio elefanteari. Belarriak ukitu dizkionak, haizetakoak irudi dutela dio. Bizkarrak, horma ematen du. Letaginak ukitu dituen itsuak ezpata direla pentsatu du. Hortaz, nork bere egia du, eta eztabaidan dira, nork bere egia besterik ikusten ez duela. Ez dizut ekarri, baina Zuzenbide Integratiboa zer den azaldu behar dudanean, nire lagun batek egurrean egindako elefante baten irudia izaten dut eskura. Kur, kur... Zuzenbide Integratiboa elefantearen gisakoa da. Hainbat aldetatik begira lekiok mugimenduari, hainbat pieza ezberdin ditu. Eta, mugimenduko kideen artean ere, batzuek dudarik ez dute beraiek egiten ari direnaren gainean, baina ezer ere ez dakite ondokoak egiten ari diren hartaz. Beste batzuek, aldiz, elefantearen osotasuna-

ren kontzientzia dute, baina ez dituzte piezak bereizten. Hala ere, bestelako Zuzenbide bat dute denek gogoan, sortzaila, bakegilea, eraldatzailea...

Zer jakin beharko genuke Zuzenbide Integratiboaz?

Zuzenbidea gauzatzeko orain artekoa ez bezalako bidea dela. Ez da lehiakorra, ez erasokorra. Zuzenbide Integratiboa praktikatzen duten abokatuak mundu bat hobea egiten saiatzen ari dira, denak batean. Bizimodu ona opa diote jendeari, beren buruekin gustura egoteko moduko bizia. Bitartekaritza, justizia bizigarria, elkarlan praktikak, eta hori guztia, psikologia positiboaren eta gizarte neurozientziaren elementuz osatua. Abokatu hauek epaitegira jo aurreko soluzioak nahi dituzte, lege sistemaren parte diren guztien ongizatea, abokatuena eta bezeroena barne. Zuzenbidera datorren hurrengo olatu handia da Zuzenbide Integratiboa. Elkarlan zuzenbidea, hemen, nahi baduzu.

Euskal Herrian ere ari zara, zenbait abokaturekin lanean.

Azken hitza:

100 urte baino gehiago

“Egin ahal dudana baino gehiago egitekoa naiz eta, horregatik, hainbat sail eta arlo landu ditut bizian. Adiskide eta lagunek esaten didate honezkero 100 urte baino gehiago izan behar ditudala, bestela ez dagoela munduan nik hainbeste gauza egiteko modurik. Dena dela!”

Batean eta bestean erein dut hazia. Hala ere, toki guztietan ere baitezpadakoa dira eguzkia, euria, ongariak... Nik esatera, Zuzenbide Integratiboari dagokionean, mundu mailako eredu da Euskal Herria. Inon baino hobeto, inon baino gogotikago ari dira Zuzenbidea eraldatzeko lan honetan. Abokatuekin, epaileekin eta beste zenbait ordezkariarekin harremanetan naiz hemen. Seigarren bi-

daia ere badut Euskal Herrira. Internet bidez jakin zuten nire berri. Amsterdamen gertatu ginela elkarrekin uste dut, 2015ean. Harrezkero, hainbat aldiz etorri naiz: orain artean Zuzenbidea gauzatzeko modua aldatu, eta gizartearen eraldatzaile, bakegile, pentsalari, balio jakin batzuen jabe... egin nahi ditugu abokatuak, eta abokatuak ez ezik, Zuzenbideari lotutako gainerako langileak.

Hemen zarenez, baitezpadakoa da galdera: zer moduz Trump presidente duzuela?

Hori ere bai? Trump sintoma bat da. Batetik, zenbait jende aldaketa nahi zuen. Bestetik, arrazakeria barruan sartuta darama zenbaitek. Batzuk sufritzen ari ziren eta gorriak ikusten ari dira oraindik ere, Trump hautatu zuten guztien artean. Orain, berriz, botere gose direnek hortxe nahi dute Trump, beren etekinak areagotu beste helbururik gabe. Baina, diot nik, dagoeneko bilioi bat dolar daukanak, zertarako nahi ditu bi bilioi eduki? Espero dut hurrengo hauteskundeetan egoera bere onera etortzea, eta gure gizarteak atzera berriz gehiengoaren balioak berreskuratzea. ■

Salalalala

Espektakulari kantatzen dio *Gari*-k. Eskandaluari Rafaelék. Eta halaxe gabilta. Espainian eskandaluz eskandalu. Euskaldunok espetakulari so.

Ikusle finen moduan, telesailaren ale guztiak irensten gabilta banan-banan. Lehenengo denboraldian ustelkeria; bigarrenean ogasunari iruzurak eta master eta abarretako titulu faltsuak; hirugarrenean estoldetako bilkura eta grabazioak, ministro-kideei irainak... Nahi beste luzatu daiteke trama, argia ikusteko prest lozorroan dagoenak horrexetarako ematen baitu, nahi besterako. PP eta PSOE tartekatu dira Gobernuan, Espainian frankismoa erreformatu eta demokrazia izendatzen duten hori hasi zenetik. Denbora horretan eta gaur arte, alderdi horien kide garrantzitsuenak izan dira botere ekonomikoekin batera Estatuko botere sarea ehundu dutenak, non eguneroko ogia, pribilegioak, eroskeria, klientelismoa eta, batez ere, guztia ezkutatzeko paktu ez idatzi bat izan diren. Estamentu guztiek hartzen zuten parte, komunikabideek barne. Interesak interes, brotxa lodienetik kotoi zuriaren frogara igaro ei dira orain.

Printzipioz irudi luke alderdi horientzat eskandaluen dinamika hau mingarria izan daitekeela. Baina PP eta PSOE batzen dituen helburu sakrosantuari dagokionez, alegia, Espainiaren batasuna betikotzeari begira, ez da bat ere kaltegarria sortutako eskandaluen dinamika. Are, Estatuko punta batetik bestera Madrilgo metropoliari begira bizitzea da, hain zuzen, lekukoa jaso zutenei frankismoak utzitako *desideratuma*. Arreta gunea non, eskema mentala han. Proiektzio mediatikoa zerk, horrexek garrantzia. Hortik sortzen



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Gelako talde osoari galdetu nion ea ba ote zekiten Ogasun sailburua zein den. Arrastorik ez. Madrilen azken boladan protagonista izan diren ministro guztien izenak, ordea, ezagunak egiten zitzaizkien. Ez da harrizkoa, *Teleberri*-n ere zuzeneko konexioa egin baitzuten Montón Osasun ministroak dimititu zuen egunean

dira erreferentziasan politikoak. Telebista minutuen eta bozka kopuruaren arteko erlazioa zuzenki proportzionala da ikuskizuna eta politika batzen diren garaiotan. Hortaz, zalantzarik ez: egin dezatela berba, nahiz eta gaizki esan.

Zorionez Euskal Herrian baditugu zurrumbilo horretatik at euskal politika eta euskal gaiak agendaren erdigunean kokatzen dituzten komunikabideak. Ez da kasualitatea komunikabide horiek euskaraz izatea. Alabaina, ezin liteke esan gure jendartea hortik at bizi denik. Atzo pasilloko elkarrizketa informalean ikasleei (publizitateko laugarren mailako gaztelaniazko taldeari) galdetu nien ea ba ote zekiten zer gertatzen den EAEko aurrekontuekin. Erantzunik ez. Ondoren, klasean bertan, beste kontu bat aitzakia hartuta talde osoari galdetu nion ea ba ote zekiten Ogasun sailburua nor den. Arrastorik ez. Madrilen azken boladan protagonista izan diren ministro guztien izenak, ordea, ezagunak egiten zitzaizkien. Ez da harrizkoa, *Teleberri*-n ere zuzeneko konexioa egin baitzuten Montón Osasun ministroak dimititu zuen egunean: "*Escándalo, es un escándalo: hau espetakulua, salalala*".

Politikaren banalizazioaren aurrean, ikusle hutsak diren herritarrak sortzen dira, eta eguneroko bazka politikarekin zerikusi gutxi eta pertsonen ibilbide pertsonal malkartsuekin lotura handiagoa duten gaiak dira. Espektakularizazio horretan, jendearen bizimoduan benetako eragina duten gaiek (aurrekontuek esaterako) aspergarriak dirudite. Euskal eremu politiko eta komunikatiboa indartu nahi badugu, bi aukera baino ez ditugu (tarteko grisak alde batera utzita): 1) edo politikaren muina beste gune batzuetara ekartzen dugu, albistegi eta titularretatik hasi, aktualitateko programetatik eta iritzi artikuluetatik igaro eta kaleko elkarrizketetara arte; edo 2) espetakulu berri batean aktore bihurtzen gara. Bestela, gure partez, beste batzuek jarraituko dute antzetzten. ■

Birsortzeko aroa

kasturte berri horren hasieran, jarraian agertutako bi gertakari berdintzuk piztu dute nere atentzioa: bata urriko lehen igandean Lapurtarren Biltzarra ez dela ospatuko aurten, eta bestea, EHZren “hil ala biziko” bilkura. Uda osoan ezagunekin izandako solas etsitu, erre eta galduekin oihartzuna egin dute albiste horiek. Gorabeherak ez dira berriak herri mugimenduetan. Mundu zabalean behatzen diren prozesu berdinak gertatzen dira Euskal Herrian; erlatibizatu dezagun afera.

EHZ festibalaren inguruan asko idatzi da. Afekzio sobera dut horren inguruko gogoetak partekatzeke. Sinple egiteko, errango nuke bi funtzio bete izan dituela azken 20 urteetan: bata barnera begira, bestea kanpora. Bi funtzio horiek, oraindik beharrezkoak direla errango nuke.

Kanpoari begira, gibeltasuna hartuz, aitor dezagun, azken bi hamarkadatan kultur paisaia asko aldatu dela. Subertsiboa zena (euskaraz kantatzea edo rock kontzertu bat antolatzea) arrunta bilakatu da. Batzuek diote ez dela baitzupada seinale txarra EHZ desagertzen bada. Normalizazio baten ondorioa edo. Ez naiz ados. Merkatuak irentsitako kultur eskaintza asepticokoaren ondoan, bada alternatiba erradikalaren beharra.



Eneko Gorri

EUSKARA TEKNIKARIA

Ez gaitzen erreprodukziara mugatu, ez eta aldaketaño kosmetikoekin konformatu. Utz diezaiozun gazteriari espresio modu urratzaile berriak bilatzen

Aitzineko belaunaldiek sortu dituzten tresnak kudeatzera ez dira mugatu behar gaurko ekintzaileak. Sortu, asmatu, esperimentatu, menturatu. Lagun batek dioen moduan, “indio gehiago eta jefe gutxiago” behar ditu gure herriak; “kudeatzaile gutxiago eta

sortzaile gehiago” gehituko nuke. Ez gaitzen erreprodukziara mugatu, ez eta aldaketaño kosmetikoekin konformatu. Utz diezaiozun gazteriari espresio modu urratzaile berriak bilatzen. Jendea asaldatu, inarrosi eta kontzientziatuko dituen gertakaria. Aitzinekoek transmititu dieguna izorratzeko eta porrot egiteko eskubide osoa dutela onar dezagun.

Barnera begira, EHZ desagertzen bada, non partekatuko dute lan txanda bat Euskal Herria aldatu nahi duten horizonte desberdinetako militanteek? XXI. mende horretan, non topatuko dira Garaziko Gaztetxeko gaztea, Ernai mugimenduko militantea, Amankomunak sareko autonomia, Hazparneko emazte feminista, Iruñeko euskaltzalea, Itsasuko kabalkadako antzerkilaria, Bermeko sortzailea, Baionako antifaxista, Errekaleorreko bizilaguna, EH Baiko hautetsia eta Mauleko ekintzaile ekologista? Zein da haien espazio partekatua?

Nostalgikoa izateko hamaika arrazoi ditugu, bere historian herri hori gauza erraldoiak egiteko gai izan delako. Baitorrak izateko zergatiak ere baditugu, etorkizunean ere dabilen harria garen goroldiorik ez baita agertuko gure jendartearen gainean. Gora bihotzak! ■





ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



50 urtez elkarrekin

Ar eta eme



Ana Mendia
EMAGIN EGOILIARRA

ozorroan topatu du biloba. Malkoari ezin eutsi, “Ongi etorri, maitea” esan eta kopetan eman dio musu. Bat-batean, ordea, jaioberriari begira-begira lerdea zeriola zegoen amonari irribarrea desagertu eta supituan sikatu zaizkio begiak. Zerbaitek harrিতuta burua sehaskatik jaso eta zalantzakor galdetu dit: “Baina, mutila da, ezta?”

Iraganeko ohitura dirudi, baina gaur-gaurkoa da haurdun geratu eta berehala bidean datozen txikiaren sexua zein izango ote den jakiteko pizten den ezinegona; gaur-gaurkoa da familia zain edukitzea, apustua nork irabaziko. Pena da, baina nago ez ote den jakite hutsetik harago doan ardura; zalantza egiten dut haurrak munduratu aurretik ez ote ditugun era batean edo bestean hezten. Etorkizuneko argazkia ekografiaren arabera irudikatzen dugu, akaso.

Kontziente naiz ez dela zilegi orain berrogeita hamar urteko abiapuntu berean gaudela esatea. Mereziduna da oraina oparago bilakatzeko desirari helduta borrokan ari direnen arrastoa. Askoren kontzientziako atea jotzea lortu dutelakoan nago. Kasurako, zenbaitek jaiotzaren erregistroan jada ez dugu idazten jaioberria gizonetza edo emakumetzkoa den; genitalak deskribatzera mugatzen gara. Aniztasunaren aldeko keinu lotsati bat baino ez da, badakit; jubilatzearen dagoen lankide batek “gaur egungo modernitate” gisa etiketatu duen detaile xume bat baino ez. Tira, hori uste nuen, behintzat.

Ondo pentsatuta, bitxia da ekintzek nola salatzen gaituzten ikustea; gure diskurtsoa nola isilarazten duten entzutea. Egia aitortzen hasita, gogoan dut orain gutxi mututu nindutela ni, amatxo bati sabel barruan nor zeraman galdetu eta izen neutro bat erantzun gisa jaso nuen une berean. Orduantxe bota zuen inolako erreparorik gabe oihartzun batek nire barruan: “Eta zer da, orduan?”. Horra hor emagin modernoak kofia jantzita ia.

Beharbada gure buruari egiten dizkiogu haurrek erantzun beharreko galdera gehiegi. Ze, jaioberriek hankartean zer dakarten jakiteak nire jardun profesionala aldatuko balu edo, sikiera nire barruko oihartzun horren alde egin ahalko nuke. Zentzugabekoa da, ordea. Zentzugabekoa da haurrak mutilak edo neskek diren epaitzea. Eta zinez ematen dit min ohitura soil moduan jantzi den derrigortasun hori bazterrean uzteko ezintasunak.

Gustura egingo nuke nik ere, jaioberriaren amonak egin duen modu berean, pisurik gabe hasperen. Pozez busti zaizkio berriro begiak: “Ez, larritu. Ospitalean parean tokatzen den maindirea erabiltzen dugu eta horregatik jarri diogu arrosa kolorekoa zure bilobari”, esan eta segituan. Erraz irten da estutasunetik. Ni, berriz, ezer argi ez dudan usteak jota geratu naiz. Mugak gaintzeko saiakeran galduta, berriro; ezustean itota, beste behin. ■

Haragia



Itxaro Borda
IDAZLEA

Azken urteotan, Euskal Herrian ere bai, haragiaren tira apaltzen doa, lanjeroski iduriz, ekoizleentzat. L214 bezalako elkarte ekintzaileek, hiltegiatako abereen trantze larriaz ohartarazten gaituzte eta egunetik egunera beganoen urratsetatik abiatzen gara, kasik deus finkoki deliberatu gabe. Supermerkatura zuzentzean, apaletan lautzen diren zitzi puska odoltsu gorriegiek disgustua hazten digute. Begiak tirriatzeko espreski tintatuak balira?

Laborantza munduan isiltasun handia bada, omerta dagoela ez errateko, haragiaren produktio energia irenslari buruz bezainbat nekazarien beraien bizi-destino ilunen inguruan. Baike

zorretan direla, baike ez dutela eskoletan besterik ikasi, baike kooperatibek eta sindikatuek bide horretan segitzera behartzen dituztela, herrialde osoen asetzera beraien gain dela errepikatuz, egia ere ez dena, janariaren funts gehiena inportatua delarik...

Zaila da, baldintza horietan, laborantza eredu aldatzeko. Kanbiamendua agian makilaren beste puntatik etorriko da, preseski laborariak berek zerga-ordaintzaile eta kontsumitzaile apaletsiztat dauzkaten (gauzkaten) herritarrek hazkurri ohitura berriak marraztuko dituztenean. Eguerdirako? Berdülaga hosto pare batekin aski dut... ■

Abertzale ez da *patriota*

Hiztegiek askotan esaten digute gezurra. Baita nahi barik ere. Hizkuntza batez esaten duguna beste hizkuntza batera pasatu bezain pronto, beste zentzu bat hartzen baitu berez.

Zenbait ahalegindu dira azken urteotan *patria* birkontzeptualizatzen. Ziurrenik, Latinoamerikan ematen dioten erabilerak harriturik. Ozeanoaren beste aldean zentzu askatzaile eta deskolonizatzailea dauka, halere, Madrilgo *patria* kolonizatzaile horreki-ko askapena gogoan, besteak beste eta hain zuzen ere. Alferrrikako ahalegina. Izendatzearekin batera mendeetako esanahi hegemonikoa indartu besterik egiten ez baita.

Erdarazko *patria*, *patriota*, *patriotismo* kontzeptuak izatez baztertzaile eta chauvinistak dira. Bandera espainolaren atzean ez dago aldarrikapen askatzailerik; bandera espainolean biltzen diren aldarrikapen bakarria Bestearen kontra egitera mugatzen da. Eratu duten Gu horretan sartzen ez diren edo sartu nahi ez dugun guztion kontra, alegia. Izan etorkinak, izan euren atzaparretatik libre izan nahi dugun nazioetako herritarrok.

Patria kontzeptu chauvinista horren arabera, “Gu -eratu duten Gu identitarioa- hobeak gara, bakarrik eta hemen jaio garelako”. Eta politikan horrelako autoestimua faltsueta-rra jotzeak badirudi emaitzak izaten dituela. Gure alboko herriak ez dira horrelakoetan aritzen diren bakarrak. Berton ere bai, “espainolak baino apur bat hobeto gaudela” saltzen den bakoitzean, kasu: pobrezia ehunekoen gora egin dute, baina trankil, espainolak baino hobeto gaude; itxaron zerrendak gero eta luzeagoak dira, baina trankil Espainian askoz okerrago dabilta. Chauvinismo merkea benetako problemak estaltzearren.



Sonia González

IDAZLEA ETA ABAR
@sonetska

Euskal identitatea jatorrian edo jaioterrian oinarritzen ez dugun bezalaxe, abertzaletasun kontzeptua patriaren oso bestelakoa zaigu. Zeren eta abertzaletasuna, ezereen gaineratik, aldarrikapena baita. Gure herriak izateko daukan eskubide kolektiboaren aldarrikapena, alegia. Ez hobeagoak, ez txarragoak, baina izan, bagara

Harrigarria da euskaldunoi edo katalanei identitario deitzea, Jonathani egunero Martínez deitzea, hori iraina bailitzan edo euskaldunoi inporta bailigun zein den euskaldunon jatorria. Edo Rufiáni *Charnego* behin eta

berriro deitzea. Zortzi euskal abizen edo zortzi abizen katalan izatea ala ez izatea espainolentzat baino ez ei da adierazgarria.

Eta guretzat, euskal identitatea jatorrian edo jaioterrian oinarritzen ez dugun bezalaxe, abertzaletasun kontzeptua patriaren oso bestelakoa zaigu. Zeren eta abertzaletasuna, ezereen gaineratik, aldarrikapena baita. Gure herriak izateko daukan eskubide kolektiboaren aldarrikapena, alegia. Ez hobeagoak, ez txarragoak, baina izan, bagara. Eta ukatzen diguten existentzia horixe aldarrikatzen dugu, hain zuzen, ikurrak altxatzen ditugunero.

Joseba Sarrionandiak *Herri proiektua* poeman esaten zuenez, “aberria daukagunean, ikurrinak sukaldeko trapu bihurtuko ditugu, Euskal Herriak izatearekin batera, ez izatearen abantailak izan ditzan”. Orduan egingo dugu berba mugak ezabatze ko balizko beharraz, ezabatu ahal ditugun mugak daukagunean.

Euskal Herriaren existentzia aldarrikatzeko arrazoia ez da, edo ez litzateke izan beharko, identitatea besterik ez. Identitateak -ez txarto ulertu- berebiziko garrantzia daukan arren. Euskal identitatea ez da toki zehatz batean jaio izanagatik harropuzkeria, euskal identitatea estu loturik dago arriskuan dagoen gure kulturarekin, eta kultura diodanean, ulertu hizkuntza ezaugarri funtsezkoentzat, Espainia eta Frantziako mugen barruan gauden artean, gutxietsia eta erasotua izango dena. Existitzeko daukagun eskubidea aldarrikatu beharra ezkerreko jarreratik ere heldu beharko litzateke batere zalantza barik. Benetako ezkerrek kolektibotasuna eta eskubide kolektiboak defendatu behar direla dudarik ez daukalako. Autodeterminazio eskubidetik hasita. ■



EUSKARALDIA DONOSTIA

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra



Eman izena irailaren 20tik aurrera
www.euskaraldia.eus

zahartzaroko mendekotasunak

ZAINZA BIRPENTSATUKO BAGENU?

Nola erantzuten diegu zahartzeari loturiko mendekotasun fisiko zein psikokognitiboetara eta horiek sortzen dituzten zaintza beharrei? Nola gurutzatzen dira klasea, arraza eta generoa zaintzeko eta zaindua izateko orduan? Erantzun diezaiokegu zahartzeari praktika komunitarioetatik?



Z. Oleaga

Mendekotasunak eta zaintza beharrak ez dira bizitzaren une zehatz batean hasten edo amaitzen. Pertsona guztiok jasotzen ditugu izaera bateko edo beste zainzak jaiotzetik, eta bizi garen artean (ia) denok ematen dizkiegu inguratzen gaituztenei. Aldatzen dena une bakoitzean ditugun behar eta mendekotasun motak dira, horien intentsitatea, eta eman ditzakegun zaintzena. Zahartzean, zaugarritasunak eta mendekotasunak areagotu egiten dira. Gaitasun fisiko eta psikokognitiboak urrituz doaz. Laguntza gehiagoren beharra dugu, laguntza gutxiago eskaini dezakegu.

Arazo baten argazkia

Gaindegia behategiak eskaintako datuen arabera, euskal jendartearen zahartze tasa handia da. Biztanleria-

ren %21,4k 65 urte baino gehiago du, Europar Batasunaren batez bestekotik gora (%19,4). Hazkunderako joera luzarotik dator eta luzaroan mantenduko dela aurreikusten da. Eustatek EAerako egindako aurreikuspenak aintzat hartuz gero, 2018 hasieran 65 urtetik gorako 480.653 pertsona bizi ziren EAEn, biztanleria osoaren %22,1. Bada, 2031n, 616.010 izatea aurreikusten da, %28,2. Adineko gehiago, eta luzarago bizi direnak. Euskal herritarren bizi-itxaropena 83,5 urtekoa da; azken hogeita hamar urteotan 10 urte luzatu da. Denbora gehiago bizi gara osasun egoera onean, baina baita txarrean ere.

Ezin dementziak aipatu gabe utzi. 65 urtetik gorako pertsonen %8-10 inguruk dementzia motaren bat du. 80 urtetik gora, proportzioa %25ekoa da.

Aurretik emandako datuekin erkatuta, 65.000tik gora lirateke askotariko dementziek gaixotutako herritarrak. "Zahartzearen arazoa" gero eta gehiago aipatzen da esparru politiko, enpresarial edo unibertsitarioetan. Osasun, ekonomia eta gizarte larrialdiaz hitz egiten da.

Arazo da ala arazo egiten dugu?

"Pertsona nagusien zainzak debaluzio bikoitza pairatzen du, soziala eta kulturala", dio Silvia Federici idazleak. Soldatapeko lan produktiboa nortasunaren ardatz nagusietakoa den jendarte-ereduan zainzak gutxietsiak daude, eta zahartzea galerarekin, zama ekonomikoarekin edo traba bilakatzearekin lotzen da. Horrek eraikitzen du "zahartzearen arazoaren" diskurtsoa.





“Tristezia handiz” bizi du Ana Delfak adinduen egoera gure herrian. “Kolonbian adindua beti dago norbaitekin, lagunduta. Jakintzen iturri da, errespetu handia diogu eta bere beharra dago etxean, gurasoena dagoen bezala”. Asteburutan, mendekotasun erabatekoa duen emakume batekin egiten du lan, eta astegunez bikote baten etxean aritzen da.

Simone de Beauvoir idazleak beste jokaleku bat proposatu zigun aspaldi: “Zaharra izatea zer den ulertu denean, ez da nahikoa ‘zahartzaroaren politika’ eskuzabalagoarekin konformatzea, pensioa igotzearekin, bizitoki osasuntsuekin, aisialdi antolatuekin... Sistema osoa da jokoan dagoena, eta aldarrikapenak erradikala behar du izan: bizitza aldatzea”.

Bizitza aldatzen ez dugun bitartean, baina, arazoa da. Ekonomia feministak dio jendarteek zaintza beharrak asetzeko lau bitarteko nagusi baliatzen dituztela: Estatua edo esparru publikoa, familia biologikoa, merkatua eta sare komunitarioak. Zer proportziotan ematen da adinduen zaintza esparru bakoitzean? Zer fluxu ari dira ematen batzuen eta besteen artean? Zaintzen ardura nagusia historikoki emakumeei inposatu zaie, familiaren eta etxearen markoan. Familia eredu, ordea, izugarri aldatu da belaunaldi bakarrean, eta dimentsio anitzetan gainera. Seme-alaben kopurua urritu da. Bizikidetzak ereduak eraldatu dira. Familiako kideen

» **Bidesaria ordaintzeko gaitasunaren arabera, merkatuan edo familian bilatzen dira zaintzarako konponbide bizigarriago edo prekarioagoak. Esparru komunitarioak minoritario izaten jarraitzen du**

» **Zaintzak aurpegi ilun makurra ere badu. Aitortzarik eza, edo zaintzaren inposaketa maitasunaren izenean**

bitokien arteko distantzia asko handitu da. Semeek eta batez ere alabek gurasoei zahartzaroan “berez” zor omen zieten zaintza naturalizatua, auzitan dago egun. Gurasoek zein seme-alabek jartzen dute auzitan, baita feminismoek ere, zaintzaren etika erreakzionarioa salatuz. Eta hala ere, familia biologikoa jarraitzen du izaten zaintzen helduleku nagusia.

Hamarkada gutxi batzuetan, esparru publikoa izan da bigarren aukera. Politika neoliberalak zerbitzu publikoak murrizten doaz, ordea, eta abandonatutako lurraldeak merkatuak konkistatzen ditu. Bidesaria ordaintzeko gaitasunaren arabera, merkatuan edo familian bilatuko dira konponbide bizigarriago edo prekarioagoak. Esparru komunitarioak minoritario izaten jarraitzen du, lehen bezala orain.

Klasea, arraza, generoa

Jendarte-hierarkian dugun botere posizioaren arabera, zaintza egokiak jaso eta emateko baliabide eta aukera gehiago edo gutxiago dugu. Botere posizioa

aldagai ezberdinek zehaztuko dute; ezin guztiei heldu lerrootan, baina hiru azpimarratu nahiko genituzke: klasea, arraza eta generoa.

Ana Delfa Piedraita Villa eta Rakel Perea Valencia profesionalki aritzen dira adinduen zaintzan. Delfa 2004an heldu zen Kolonbiatik Europara, erbesterratu politiko bezala. 2012tik Araban bizi da, pertsona nagusiekin lanean, etxe partikularretan ia beti. Perekak demenziak eta bestelako mendekotasun psikokognitiboak dituzten adinduekin egiten du lan 2000. urtetik. Zuzendari lanak egiten ditu 35 gaixo hartzen dituen Bizia eguneko zentroan. Aldundiaren zentro publikoa da, kudeaketa pribatukoa.

“Tristezia handiz” bizi du Delfak adinduen egoera gure herrian. “Kolonbian adindua beti dago norbaitekin, lagunduta. Jakintzen iturri da, errespetu handia diogu eta bere beharra dago etxean, gurasoena dagoen bezala”. Asteburutan, mendekotasun erabatekoa duen emakume batekin egiten du lan, eta astegunez bikote baten etxean aritzen da. “Emakumea depresio sakonak jota dago; 88 eta 83 urte dituzte eta fisikoki biak daude gainbeheran”. Astean 60-65 orduko lanaldia du, beti ordutegi zatikatuan. “2012an ez zegoen bertako zurririk zereginotan, ez zen haiantzako lana. ‘Ipurdiak garbitzea? Bai zera’. Baina orain, enplegu gutxi dagoela-eta, badira batzuk, baliabide urriko jendea, hori bai”. Zaindu dituen guztiak zuriak dira.

Sektore gutxietsi eta prekarizatua da, arrazializatua eta feminizatua. “Ni hasi nintzenean, ordua 10 euroan ordaintzen zen gutxi gorabehera, orain gutxiago. Gizarte-segurantzarik ez, pagarik ez, oporrik ez. Exijitu, ordea, asko: janaria prestatzen jakitea, garbitzea, nagusien zaintzan esperientzia eta formazioa izatea. Egunean 8 ordu, 700 euroren truke”. Bada baldintza okerragorik. Lagun bat du barne-langile etxe batean. “Ez dizkiote egunean bi ordu ematen atsedenerako. Larunbatetan gaueko hamarretan irten eta igandean goizeko hamarretan bueltatzen da. Hori 700 eurorengatik, bere kargu bi pertsona nagusi dituela”.

Zaintzen kate globalen parte da Ana Delfa. Bertako adinduak zaintzen urteak eman, eta norberak zaindua izateko beharra heltzen den uanean jaioterrira

buelta egiten dute askok. “Nik 14 urte daramatzat etxetik kanpo, 47 urte ditut orain. Ez dut aurrezkerik, ez dut etxerik, ez dut ezer. Gaixotzen banaiz, nork zainduko nau? Kolonbiara bueltatu beharko dut. Eta zerekin noa? Nork mantenduko nau?”. Guztiok bezala, etorkizunean ez ezik, orain ere badu zaindua izateko beharra. Baina “hori ez diogu gure buruari planteatu ere egiten. Autozainketa egon beharko litzateke, baina horretarako denbora ere behar da, eta guk ez dugu halakorik”.

Rakel Perek zuzentzen duen Bizia eguneko zentroan langile guztiak emakumeak dira; ez dago migratzailerik, ordea. Ezta erabiltzaileen artean ere. Prekarizazio orokortuak eragiten badio ere, lan-baldintzak duinagoak dira. Gaixotasun psikokognitiboek dakarten mendekotasuna eta zaintzen exigentzia muturrekoa azpimarratu ditu: “Diagnostikatu eta denbora tarte laburrera 24 orduko arreta behar duzu. Gaixotasunak etengabe egingo duenez aurrera, etxean beharrezko zaintza bermatzea oso zaila da. Familiek etxeetan egiten dute, baldintza izugarrietan”. Emozionalki oso gogorra da, gaixoarentzat zein ingurukoentzat, eta prozesua urtetan luzatzen da.

Eguneko zentro zein bizitzeko egoitza publikoak, denak daude lepo, eta itxaron zerrenda luzea da. Diru-sarreen eta ondasunen araberakoa bada ere, eguneko zentroagatik hileko 503 euro ordaintzen dute gehienek, eta egoitzengatik 1.116-1.400 euro artean. Gehienek egoitza pribatuetara jotzen dute. Ordaindu ahal badute, beti ere. “Aldundiak diru-laguntzak ematen ditu, gehienek 1.000 eurokoak, baina egoitza pribatuetan hileroko 2.500-3.000tik gora ordaintzen da”.

Jendartearen bilakaera ikusten du bere lanpostutik. Familia ereduak “gero eta txikiagoak dira, zaintzaileak gutxiago beraz, eta nagusiak”. Sarea txikiagoa eta prekarioagoa da. Ondorioz, garai batean eguneko zentroan urte asko emanago zituen adindua egoitzara bideratzen da orain. “Alaba bakarra, etxean bakarrik bizi den aita zaintzen duena esaterako. Mendekotasuna gora badoa eta zentroak 8 orduz baino ez badu hartzen, nola egin gainerako orduetan zaintzeko?”.

Zaintzak ulertzeko moduak ere aldatzen doaz. “Nagusiak zaintzen 60-70

» Bi eroriko izan ditu Marianne Brullek. “Nik ez nuen askorik esan, baina jakin zuten. Whatsapp taldea osatu, eta, ‘nor doa gaur Marianne ikustera? Janaria behar duzu?...’; egunero zettorren norbait etxera”



TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com



TALLERES
MITXELENA
S.COOP.



Tomo bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikufiaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



Goiko argazkian, Marianne Brull eta bere Euskal Herriko "familia". Familia biologikoa Suitzan duen arren, auzoan bertan ditu elkar zaintzeko prest daudenak. Beheko bi argazkietan, Etxekide proiektuko argazkiak, pertsona adinduentzako etxe kolaboratiboak eraikitzea helburu.



urte inguruko alaben belaunaldia ari da. Gurasoengandik jaso duten mezua da, 'nola eramango nauzue egoitzara? Zainduko nauzue etxean hil arte', eta hori emozionalki, bereziki alabentzako, kristoren zama da". Baina aldaketa sumatzen du Pereak. Belaunaldi horrek "zama kendu nahi digu orain 40-45 urte ditugunoi: 'Amak esan dit txarto jartzen banaiz egoitzara eramateko'". Zaintzak aurpegi ilun makurra ere baduela argi du. Aitortzarik eza, edo zaintzaren inposaketa maitasunaren izenean. Etorrizuz ez da oso baikor. "Hazi dena merkatua da. Familia izan zen denbora askoan zaintzaz arduratu zena, publikoa garatuz joan zen ondoren, baina urteak dira blokeatuta dagoela. Ni eguneko zentro pribatuak ezagutu gabea nintzen, eta orain Gasteizen badira batzuk".

Esperientzia komunitario eraldatzaileak

Beti daude urratutako bideetatik eta muga hertsietatik kanpoko ideiak eta praktikak garatzen dituzten pertsonak eta taldeak. Kontxesi San Juan Elizalde 60 urte ditu, eta Iruñean bizi da. Etxekide kooperatibako kide da, pertsona adinduentzako etxe kolaboratiboak eraiki nahi dituena. 53 eta 71 arteko 35 pertsona dira (25 emakume eta 10 gizon), denak iruindarrak edo inguruko herrietakoak. "Taldea ertaina nahi dugu. Asko bagina, egoitza bat emango genuke, gutxiago ezagutuko genuke elkar. Taldea txikiegia bada, berriz, elkarrekin mendekotasun handiegia izango genuke".

2016an hasi ziren bi lagun ideiarri forma ematen, eta hurrengo urtean lau pertsona batu zitzaizkien. "Ateak jende gehiagori zabaldu aurretik, gure proiektuaren oinarriak adostu genituen: ekologikoa izatea, hirian bertan egotea, izaera soziala izatea, auzoko mugimendu herritarrekin lotura izatea...". Ahulgune nagusia hauskortasuna izaten dute



65 URTETIK GORAKO BIZTANLERIA

KOPURUAK EUSKAL HERRIAN ETA EUROPAR BATASUNEAN (%)



BILAKAERA EUSKAL HERRIAN ETA EUROPAR BATASUNEAN (%)



Iturria: Gaindegia, 2017. urtea.

proiektu hauek. “Asko sortzen dira, baina ehuneko hamar edo hezurmamitzen dira soilik”.

San Juanek zahartzean independenziari eustea aldarrikatzen du behin eta berriz. Baina ez “bakardadeari loturikoa”. Etxekideren parte izateko, “gainontzekoak zure bizitzan garrantzitsuak izateko jarrera izan behar duzu aurrez. Erraz laguntzeko eta lagundua izateko armiarma sarea osatu nahi duzu”.

Autogestio komunitarioa, zerbitzu publikoak, instituzioen parte-hartzea. Denen beharra eta osagarritasuna defendatzen ditu. “Gutako bati, adibidez, alzheimerrek jotzen badio, zerbitzu publikoek hor egon behar dute, baina harago ere babestuta egongo da”.

Familia biologikotik harago

Marianne Brull ohiz kanpoko bizitza egin duen 83 urteko emakumea da, zahartzaroaren mendekotasunei erantzun ezohikoa eman diona. Sortzez suitzarra, 30 urte eman zituen Parisen bizitzen. Azken 30 urteak Bartzelonako Poble Sec auzoan. “Bakarrik bizi naiz, zoriontsu. Zaintzari dagokionez, ez dut

senarrik ez seme-alabarik”. Senide biologikoak Suitzan ditu, baina badu familiarik auzoan bertan. “Pertsona talde batekin egin nuen topo, nire familia direnak, ‘familia’ deitzen diogu taldeari. 8-10 gara, orain hamar urte inguru ezagutu nituen, 20-23 urte zituztenean. Ikasleak ziren orduan, orain lanean ari dira”.

“Naizen modukoa naizelako ezagutu nituen”. Postutxo bat ikusi zuen kalean aldizkari batzuekin, hurbildu, zer egin zuten galdetu... eta egun horretan bertan bisitatu zuen gune kultural zein etxebizitza gisa gazteek erabiltzen zuten lokala.

Denboraldi batez familiako inor ikusi gabe egon daiteke, tarteka egunero ikusten ditu. Azken urteetan bi eroriko izan ditu Brullek. “Nik ez nuen askorik esan, baina jakin egin zuten. Whatsapp taldea osatu, eta, ‘nor doa gaur Marianne ikustera? Janaria behar duzu?..’; egunero zetorren norbait etxera. Autonomoa naiz, horrekin tematia naiz, baina behar dudanean hor daude, eta zoragarria da”. Berak zer ematen duen galdetuta, “nik uste asko jaso eta gutxi ematen dudala, nahiz eta beraiek ezet

esan. Egia da nire pentsaeragatik eta biziutakoengatik erreferente naizela haientzako, iritzia eskatzen didate, eta nire etxea familiarentzako topagune ere bada, eskertzen dute hori”.

Eredua beste batzuentzat ere interesgarria dela iritzi dio. Baina zailtasunak ikusten ditu. Batetik, familia biologikoan ixteko joerak beste sare mota batzuk sortzea zailtzen duelako. Bestetik, adinekoekin kritikoa da: sarri gazteen beldur bizi omen dira, mesfidati, juxtu kontrakoa denean onena, hurbiltzea.

“Zaharra ez da izandakoa, luzaroan dena baizik” zioen Oskorrik musikatutako Jon Sarasuaren kantak. Marianne Brullek antzeko zerbait esaten digu bere modura. “Nik zahar hitza aldarrikatzen dut. Zaharrak gara. Ez trapu zaharrak, pertsona zaharrak baizik”. Familia biologikoa inoizko antzuen, merkatuak eta merkantilizazioa gora, zerbitzu publikoak erretretan... Emakume, desjabetu eta arrazializatu aurpegiko zaintza bigegeben sakontzen jarraitu dezakegu, edo alternatiba duin eta gozatsuak eraikitzen saiatu. Bada abiapunturako heldulekurik. ■

Francia Márquez,

EKINTZAILE AFROKOLONBIARRA:

“Gerra garaietan indarkeria jasatea tokatu zitzaigun, eta bake garaietan indarkeria pairatzen jarraitzen dugu”

Euskal Herrian izan da Francia Elena Márquez Mina lider afrokolonbiarra, ekintzailea, giza eskubideen defendatzailea eta 2018ko Goldman Ingurumen Sariaren irabazlea. REAS Euskadi, Paz con Dignidad, OMAL eta EHUKo Parte Hartuz ikerketa taldeak antolatutako *Trantsiziozko Alternatibak Herri-Ekonomi Baterantz* nazioarteko ikastaroaren baitan etorri da.



Amaia Lekunberri Ansola

@amaialekunberri

ARGAZKIA: SANTIAGO MESA

Mundu osoan hilketak eragiten dituen eredu ekonomikoaren kontrako erresistentzia borrokak ardatz, afrikarren ondorengo komunitateak Kolonbian bizi duen egoera eta herrialde horretako bake testuingurua izan ditu hizpide Márquezek. Cauca departamentuko iparraldean kokatzen den Suarez udalerriko Yolombó arbasoen lurraldean jaioa, lurrotan egiten den legez kanpoko meatzaritzaren kontrako borrokaren buru da, eta horregatik jasandako mehatxuak tarteko defendatzen dituen lurretatik alde egin behar izan zuen 2014an.

XVII. mendean beren arbasoak Afrikatik Kolonbiara esklabo eraman zituztenetik, afrokolonbiarrak Márquezek defendatzen dituen lurretan bizi izan dira. Urte guzti horietan meatzaritza artisaua

eta nekazaritza izan dituzte bizibide, baina 80ko hamarkadaz geroztik Kolonbiako Gobernuak “garapenaren izenean mega-proiektuak bultzatzen” dabilela salatu du Márquezek. “Gure eskubide eta lurretatik miseria, txirotasuna eta hondakinak sortu dituzte”, azaldu du.

Kolonbiako Gobernuak bere herrialdea Mendebaldeari meatzaritza helburruekin saltzeari ekin zion momentuan, Márquezek dioenez, legez kanpoko meatzaritza hedatzen hasi zen beren lurretan. Kanpora begira Gobernuak legez kanpoko meatzaritza gelditu behar zela esaten bazuen ere, sustatu egin duela salatu du ekintzaileak. “Legez kanpoko meatzaritza bultzatu eta baimendu egin du ustelkeria instituzionalak, jendea beren lurretatik kanporatu



eta meatzaritza justifikatzeko estrategia da”, azaldu du.

Indarkeriaren aurka erresistentzian sarri artikulatu dira Cauca herritarrek, 2009an gertatutakoa horren adierazle. Urte horretan, borroka luze baten ondoren eta gatazka armatuaren testuinguruan, Kolonbiako Gobernuak enpresa transnazionaleri eman zizkien komunitate afrokolonbiarraren lurrak eta bertako biztanleak “asmo txarreko aztoratzaile” izendatu zituen, azken hau delitua izanik. “Arbasoen lurren jabe izatetik gaizkile izatera igaro ginen”, dio Márquezek. Horren aurrean mobilizatu egin ziren, eta hainbat esku hartze juridiko tarteko, sententzia irabazi zuten. Gobernuak nazioarteko enpresei esleitutako meatzaritza tituluak bertan



behera gelditu ziren, aurretiazko kontsulta eskubidea ez errespetatzeagatik. Momentu horretan borroka irabazi zutela uste izatera iritsi baziren ere, gatazkak jarraipena izan duela azaldu du Márquezek. Ordutik hona, legez kanpoko meataritza hedatuz joan da, eta honi aurre egin beharrean ikusi dira. “Guri dagokigu legez kanpoko meatariei aurre egitea, eta hauek aktore armatuen babesa izaten dute sarri”, dio.

Legez kontrako meataritzaren aurkako borroka horren baitan, 2014an Arbasoen Lurraldean eta Bizitzaren Zaintzarako Emakume Beltzek mobilizazioa egin zuten. Cauca iparraldetik Bogotaraino joan ziren oinez ia hilabete iraun zuen ibilaldian, meataritza ilegala eragiten dituen kalteak ikusarazi eta

Gobernuari afrokolonbiarren eskubi-deak bermatzea exijitzeko. Gobernuak bere horretan jarraitu du ordea, eta ondorioz, komunitate afrokolonbiarra bizi baldintza duinak izatetik geroz eta urrutiago dago: meataritzaren ondorioz komunitateak ez dauka ez akuedukturik ez edateko urik, eta merkurio partikulaz jositako ura edaten ari dira. “Ez bagaituzte balaz hiltzen, pozoinduta hilko gaituzte”, salatu du Márquezek.

Bake testuingurua, segun eta norentzat

Gatazkak iraun bitartean, borroka armatua oso presente egon izan da Cauca departamentuan, eta ondorioz Kolonbiako Estatuaren partetik emandako giza eskubideen urraketak ere bai.

» 2018ko lehen seihilekoan 77 lider sozial hil dituzte gutxienez Kolonbian

» **FRANCIA MÁRQUEZ:**
“Ez bagaituzte balaz hiltzen, pozoinduta hilko gaituzte”

Márquezek azaltzen duenez, hain zuzen ere indarkeria hori bizi izan dutelako, eremu horretako biztanleen gehiengoak bakearen alde bozkatu zuen. Halabaina, bake prozesuaren osteko garaioan gerrillak eta talde paramilitarrak agertokitik at geratu badira ere, “interes ekonomikoak eta enpresa transnazionalak zaintzen dituen estatuak” hortxe dirau, baita horrek eragiten duen indarkeriak ere. “Gerra garaioan indarkeria jasatea tokatu zitzaigun, eta bake garaioan indarkeria pairatzen jarraitzen dugu”, azaldu du Márquezek, hainbat ekintzaillek jasaten duten bortizkeria azpimarratuz indarkeria horren adierazle garbi bezala.

Somos Defensores erakunde Kolonbiarrak mahaigaineratutako datuen arabera, 2018ko lehen seihilekoan 77 lider sozial hil dituzte gutxienez Kolonbian, eta 2009 eta 2017 urteen artean aldiz 573. Datuon aurrean argi mintzatu da Márquez: “Indarkeriak hortxe jarraitzen du. Azken urteetan hiltzen ari diren liderrak gure komunitateetan inposatzen ari diren eredu ekonomiko hilgarriaren adierazle dira”. Egungo testuinguruan bakea denontzat gauza bera ez den seinale.

Egoera honen aurrean “komunitatea izaten jarraitu eta duintasunez bizitzea ahalbidetzen digun garapenaren ikuspegi baten aldeko apustua” egin dute afrokolonbiarrek. Orain arteko garapenaren ikuspegiak, besteak beste, heriotza, giza eskubideen urraketa, behartutako desplazamenduak eta bizitza duina izateko baldintzen galera ekarri dizkie. Beraiek argi daukate: “Gure lurretan lasai bizi nahi dugu, odola isurtzeaz nekatuta gaude”. Azpimarratu ohi denez, baina, Kolonbian bakea kontakizun instituzionala da oraindik. ■

Alina Rocío Blanco Ramos

“Euskal komunitatean integratu nahi ditugu euskaraz komunikatzeko oinarrizko beharrik ez dutenak”

Zubideiak ekimenaren bigarren ediziorako deia egin dute 21 eragilek. *Bizi euskara zure erara* goiburua izango du aurtengo topaketak, eta gizarte elkarrizketaren bidez kulturen arteko zubiak eraikitzea izango dute helburu nagusi. Zubiok jasotzeko euskara izango da ardatz. Alina Rocío Blanco Barros (Bogotá, Kolonbia) ekimenaren sustatzailea eta Emigrados Sin Fronteras elkartearen kidea da.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Ainhoa Bretos

@ob_ainhoa

Blanco Ramosek Biologia ikasketak burutu zituen sorterrian. Ondoren, Ingurumenaren Gaineko Eraginari buruzko masterra ikasi zuen, eta Euskal Herrira etorri zen Nazioarteko eta Kulturarteko Ikasketen inguruko doktoretza egitera. Orduetik, Emigrados Sin Fronteras Elkartearen aritu da lanean.

Zer da Zubideiak?

Kultura, etnia eta jatorri anizteta pertsonen arteko elkarrizketa soziala sustatzen duen espazioa da. Bertan elkartzeko gara euskara komunikatzeko tresna dela sinetsita gaudenak. Izan ere, orain arte euskaldunak euskaldunekin batu izan ohi dira, nolabait esateko, “berdinen” artean komunikatzeko.

Ekimen honen bidez, espazio hori ireki nahi dugu, euskaraz hitz egiten ez dugunok ere hurbildu gaitetzen hartu gaituen herrian bizi dugun errealitatera. Aurtengoa bigarren edizioa izango da,

eta lehenengoan bezala, euskal komunitatean integratu nahi ditugu euskaraz komunikatzeko oinarrizko behar hori ez dutenak.

Zer helburu dituzue?

Lehenik eta behin, sinestea euskara guztion ardura dela, eta aniztasunak aberastasuna eta aukera berriak dakartzala gure gizartera. Horrez gain, hitz egin dezaketan ahots anitzak entzuteko eta ideiak partekatzeko elkargunea aurkitzea da gure xedea.

Azken batean, ni kide naizen Emigrados Sin Fronteras Elkartearen ikuspuntutik, gizakiok testuinguru berrietara egokitzeko beharra dugu. Etorkinentzat ia premiazkoa da norberaren harrera-lurraldeak duen identitatea ezagutzea. Gure ustez oso garrantzitsua da adimenak apur bat irekitzea eta ulertzea gizartearen egokitzeko edo txertatzeko dugun beharrezana.

Euskarak lagundu dezake gizarteratze horretan?

Noski. Euskara tresna bat da, ezagutzen ez dugun kultura batera hurbiltzen laguntzen gaituena. Oztopo modura ikusi izan da maiz, baina nire ustez ez da oztopo bat, ez da hesi bat, jakin-mina eragiten duen helburu bat baizik.

Euskaraz ez jakiteak eragozpenak ditu, adibidez lan egiteko, euskaraz matrikulatuta dauden seme-alabei eskolako lanekin laguntzeko, eta abar. Baina ez dugu oztopotzat hartu behar, inondik inora ere, euskarak gure gizarteratze prozesua errazten du guztiz. Uste dut, gainera, gu denon ardura ere badela euskal komunitatera hurbiltzea.

Nola kokatzen da Emigrados Sin Fronteras ekimen honetan?

Etorkinekin eta euskaraz hitz egiten ez dutenekin egiten dugu lan. Gure asmoa da jendeari erakustea elkarrizketa so-

URRIAREN 20AN DONOSTIAN

Zubideiak ekimena Donostiako Miramar Jauregian egingo da urriaren 20an. 21 eragile dira antolatzaileak: AEK, Agirre Lehendakaria Center, Bagera Elkartea, Biltzen, Deustuko Unibertsitatea, EDE Fundazioa, EH 11 Kolorre, Elhuyar, Emigrados Sin Fronteras, EMUN, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskaltzaindia, Euskaltzaleen Topagunea, Garabide, Gipuzkoako Foru Aldundiko Aniztasun Saila, Gune Irekiaren Lagunak, Jatorkin Al-nahada, Kutxa-Ekogunea, Mondragon Unibertsitatea, Soziolinguistika Klusterra eta Urtxintxa.

zial hau gauzatu ahal izateko espaziorik badela. Hori garrantzitsua dela azaltzen diegu, hartu gaituen herrialdeko hizkuntza gureganatzeko aukera ematen duelako, baita bertako kultura eta ohi-turak ulertzeko ere. Horrez gain, guk ere asko dugu eskaintzeko, harreman hori noranzko bikoia izan dadin.

Euskal Herrira etorri nintzenetik egon naiz elkartean sartuta. Gehienbat ingurumenari eta garapen jasangarriari buruzko lanak egiten ditut, baina hasieran migrazio prozesuei buruzko proiektuetan aritu nintzen.

Nola bizi izan zenuen zuk prozesu hori?

Orain dela hamar urte etorri nintzen Kolonbiatik, Deustuko Unibertsitatean ikasteko beka batekin. Heldu nintzenean, ez nekien zer zen Euskal Herria. Ezagutza faltagatik edo, baina ez nekien euskara bazenik ere, eta ez nekien hizkuntza horrek noraino eragiten zuen Euskal Herriaren nortasunean.

Beraz, hasieran erabat galduta nengoen, niretzat sorpresa izan baitzen. Baina jakin-minagatik eta uste dudalako,



“Etorrintzat ia premiakoa da norberaren harrera lurraldeak duen identitatea ezagutzea”.

identitate ikuspuntutik, euskara garapen jasangarriaren parte ere badela, hainbat taldetara hurbiltzen hasi nintzen. Euskaldunekin elkartu naiz eta orain esan dezaket ulertu dudala zergatik den Euskal Herriarentzat horren garrantzitsua nortasun propioa nabarmentzea; agian, Kolonbian faltan duguna.

Kolonbian ez duzue nortasun propioirik?

Kolonbiarroi burujabetza sentimendua falta zaigu. Adibidez, gure herrialdeko produktuak erosi beharrean, nahiago dugu erosi Ameriketako marka bat. Estatua kontua da, erosteko ahalmen handiagoa dutenek, nahiago dute kanpoko produktua erosi.

Hizkuntzari dagokionez, Kolonbian antzinako kondairak berreskuratzen saiatzen dabilta, hori baita geratzen

zaigun bakarra. Gure hizkuntzak abolitu zituzten kolonialismoan, esango nuke Latinoamerikan bizirik dagoen bakarra Paraguain hitz egiten duten guaraniera dela. Beste guztiak galdu egin dira, iraganen ahaztuta gelditu dira betiko, eta horrek pena handia ematen dit. Hizkuntzak norberaren identitatea eraikitzen laguntzen du, eta kolonbiarrak apur bat deserrotuta gaudela uste dut.

Horregatik esan dut lehen, nahiz eta euskaraz ez jakiteagatik ez dudana izan aukerarik lanpostu batzuk betetzeko, niretzat hizkuntza ez dela inoiz eragozpena izan. Euskararekiko dudana sentimendua mirespena da, Euskal Herria miresten dut, bere nortasunagatik borrokatzen duen herria da. Hori oso garrantzitsua iruditzen zait, eta Latinoamerikan ere beharrezkoa dugula uste dut. ■

BABESLEA: **LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA**



EUSKARALDIA



**EUSKARAK
365
EGUN**

**Lezo EUSKARALDiAren
Ez duzu oraindik izena eman
ANIMATU ZAITEZ!**



Lezoko Unibertsitateko Udala

ANTUDO SIZILIAREN INDEPENDENTZIA BIRPENTSATZEN



*Autodeterminazioaren aldeko
margoketa Palermoko horma batean.*

A. MIMENTZA



Kokapena dela eta Sizilia betidanik egon da inperio eta interes askoren menpe. Hamaika konkista eta beste hainbeste matxinada bizi izan ditu, eta horren ondorioz errebeldia kulturen oso sustraituta duen herria da siziliarra.

Testua: A. Mimentza

Gaur egun Italiako errepublikaren kolonia papera jokatzeko du askoren iriztitan, eta ez bakarrik hegoaldeko erregioetan -*mezzogiorno* delakoan- ohikoa den azpi-inbertsioaren ondorioz. Azken hamarkadetan langabezia tasa eta krisi soziala gehien areagotu diren tokia da. Iparraldeko eskualdeen zerbitzura sortutako ekonomiak, puztutako administrazio eta burokrazia publikoak, industriaren desegiteak eta lurraldearen beharrei erantzun gabe ustiatutako baliabide naturalek menpekotasun politika mantentzera kondenatu dute.

Sizilian nagusiki ustiatzen diren baliabideak bi dira: kulturalak (turismoaren bidez) eta naturalak (zabortegi, errauskailu, gas zulaketa eta petrolio findegien bidez, besteak beste). Siziliaren esportazio nagusia elikagaiak dira eta kazikismoaren kontrolpean dauden nekazaritza-ustiaketetan ekoizten dira gehienbat. Mendebaldeko herrialdeek bultzatutako gerretatik ihesean dabilzan pertsona errefuxiatuak dira lan-indar nagusia, muturreko baldintza prekarioetan esplotatuak. Garapen eredu zanpatzaile horrek lurraldea eta biztanleria etekin-iturri bilakatzen dituen bitartean, paisaia suntsitu, ondarea xurgatu, lurra eta airea kutsatu, era guztietako eskubideak urratu eta komunitate harreman oro desegiten ditu. Gainera, eskola absentismo handiak zein gazteen emigrazioak (175.000 azken hamarkadan) etorkizun are beltzagoa marraztu dute uhartearen gainean.

Mafia, Siziliako fenomeno autoktonoa?

Egoera horren aurrean ez da harrizkoak siziliar askok biziraupen bideak ekonomia eta arau ofizialekin kanpo bilatu behar izatea. Hala ere, illegalitatearen fenomeno zabala ez da mafia siziliarraren irudi hollywoodiarrarekin nahastu behar. Administrazio publikoa

bezerokeria-harremanen zerbitzura baliatzen dituzten sareak dira mafiak; hau da, tokiko eta estatu-mailako alderdi politikoen konplizitatearekin lurralde baten gainean jauntxo izatea bilatzen duten talde ekonomikoak. Fenomenoa Siziliaren patrimonio izatetik urrun, edonon gertatzen da. Baita gurean ere. Ustelkeria praktika ohikoenak azpiegitura erraldoien eta zaborren kudeaketarako kontratu publikoen esleipenean eta etxebizitzaren eraikuntza espekulatiboan gertatzen dira. Ezaguna da Siziliak Italia osotik datozen zaborrak jasotzen dituela pilatu eta errausteko, biztanleriaren minbizi eta osasun arazoez gora egin duten bitartean. Muturreko kasuetan soilik droga eta pertsonen trafikoa ere gehitzen zaizkie antolaketa kriminal hauen jardueri.

Ez da ahaztu behar mafia hauek gerraostean AEBen eskutik itzuli zirela, alderdi komunista neutralizatzeko helburuarekin. Era berean, interes militar ugari dago jokoan uhartearen garrantzia geoestrategikoa dela eta. Estatubatuarrek eta NATOk base militarrik baliatzen dituzte bertatik Mediterraneo osoa kontrolatzeko eta Afrika iparraldean eta

Sizilia Mediterraneo itsasoko uharterik handiena da. Bost milioi biztanletik gora ditu eta Palermo da hiriburu nagusia. Gaur egun Italiako errepublikaren menpe dago eta 1946tik autonomia estatutu berezia dauka, zergak biltzeko eta legegintzarako eskumen zabalekin. 2017tik gobernu autonomikoa eskuin italiar eta autonomistaren arteko koalizioak osatzen du. Hizkuntza nagusiak italiarra eta siziliarra dira. Azken honek 4.700.000 hiztun inguru eta dialekto ugari ditu, Sizilia, Kalabria eta Salento artean banaturik.



ANIEBALSKI



ASKAPENA

Ekialde Hurbilean gerra egiteko. Horren adibide dira Sigonellako basea, munduko “dronen hiriburua” izenez ezaguna, eta MUOS abiadura handiko telekomunikazio sistemaren antenak.

Horrek guztiak uhartearen kolonia izaera eta Italiako Estatuko dependentsia katea elikatu eta areagotu egiten du, eta hainbat izan dira independentzia aldarrikatzeko antolatu diren esperimentzia historikoak. Aipagarrienak 1943an sortutako MIS (Siziliaren Independentziarako Mugimendua) alderdia eta Antonio Caneparen EVIS (Siziliaren Independentziarako Boluntarioen Armada) autodefentsa gerrillak izan ziren. Gerraostean, ordea, alderdiaren korronte moderatuak mugimenduaren gaineko kontrola hartu zuen, eta autonomia estatutua lortu eta gutxira desegin zen. Orduetik estatu siziliarra helburu izan duten taldeak marjinalak izan dira panorama politikoan, gehienak kutsu eskuindar eta tradizionalistarekin.

Mugimendu berri baten jaiotza

Duela hiru urte sortu zen Antudo, Sizilia mailan antolatutako herri mugimendu anitzen koordinazio gunea. Uhartearen independentziaren aldeko aldarri historiko baten izena hartu du, iragana berreskuratzeko eta oraina borrokatzeko asmoari lotuta. Orduetik hirietako eta landa-guneetako borrokak saretzen ahalegindu dira. Palermon eta Catanian periferietako auzoetan oinarrizko beharrak asetzeko inizatibak antolatzen dabilta, etxebizitzaren, osasungintza-aren edota kirolaren arloetan. Halaber, irakaskuntza eta formazio guneetan, unibertsitatean batez ere, kultura eta historia propioaren berreskurapenean lanean ari dira. Landa-guneetan azpiegitura erraldoi eta kutsakorren, eta base militarren aurkako batzorde lokalen sarea sortu dute.

Mugimenduaren helburua da autogobernu-ikuspegia maila guztietara zabaltzea, Estatuaren kontroletik eta kapitalismotik independentzia lortzea.

Lehen argazkian, Niscemi herrian eraiki den MUOSaren antenek aurkakotasun handia sortu dute uhartearen. Bigarren argazkian, aurrez aipatutako azpiegituren aurkako 'No MUOS' manifestazio bat. Eta hirugarrenean, hausnarketa eta eraketa prozesuan dago Antudo mugimendua.

Horretarako ezinbestekotzat jotzen dute zapalkuntza kolonialetik askatzea, ekonomia asistentzialista apurtzea eta kultura siziliarraren defentsa. Finean, dependentzia suntsitzea eta lurraldearen kudeaketa eta garapen eredu bertako komunitateak berak erabakitzeko: zergen gaineko kontrola izatea, instituzio lokalen inbertsioa bertako beharrei asetzera bideratzea, kanpoko kapitalaren interbentzioa eta ustiaketa gelditzea, berdintasun handiagoa eta birbanaketa justuagoa lortzea, gazteen emigrazioa gelditzea, herritarren parte-hartze forma berriak asmatzea, edo hizkuntza propioa balorean jartzea.

Independentzia ez dute boterearen egungo forma instituzionala kudeatzearen sinonimotzat hartzen. Antudoren ustez independentzia erantzunaren forma da, baina edukia beste bat da: elkartasunean oinarritutako harremanak sortzea, Kurdistango Rojavan konfederalismo demokratikoarekin ikusi bezala. Beraz, beraien helburua ez da estatu-nazio soil bat lortzea. Behetik gorako prozesu luzea irudikatzen dute, lurraldea ustiatzearen aurkako kontzientzia sortu eta kontzientzia hori politikoki antolatzea da oinarria. *Brexit* eta Kataluniako prozesuetan boterearen zentralizazioarako joeraren aurkako erresistentziak aztertu ostean, lurraldearen burujabetza borrokaren erdigunean jartzea erabaki dute. Horrexegatik baliatzen dute Siziliako bandera –trinakria– identifikazio ikur gisa, ezaugarri etnikoari beharrezko norberaren bizilekuaren defentsari arreta jartzeko. Arrazoi beragatik ez dute balizko independentzia baten ondoren euren burua Europar Batasunaren barruan ikusten, horrek erabakitzeko gaitasuna urruntzearekin batera iparraldeko herrialdeen nagusitasuna eta merkantzien zirkulazioa errazteko mekanismo ekonomikoa dela uste dutelako.

Zailtasunak, siziliar askoren miseria eta emigrazioa, ez dira gutxi. Hezkuntza sistemak bultzatzen duen nortasun italiarra oztopo nabarmena da pentsa-

molde kolonizatuarekin hausteko, eta kultura eta hizkuntza siziliarrak mespretxua pairatzen dute jende askoren partetik. Siziliako gobernuak 2019tik aurrera eskoletan hizkuntzaren berreskuratze-saiakera txiki bat aurreikusi duen arren, periferiako auzo eta landa-guneetatik kanpo siziliera oso bazterturik dago.

Gaur egun mugimenduaren erronka nagusia galdera honi erantzuna ematea da: zelan gobernatu lurralde bat estatu egiturarik gabe? Sizilian, eta Palermon zehazki, aukera ugari daude. Herri eta auzo asko Italiako Estatuaren partetik guztiz abandonatuak sentitzen dira (errepresiorako izan ezik), eta nortasun siziliarra eta erreboltarako joera indartsuagoa da. Hegoaldeko auzia –*Questione meridionale*– betidanik izan da Italiaren arazoetariko bat, eta gaur-gaurkoz eraldaketarako gakoa lurralde horietan dago, estatu-egituraren kate begi ahula direlako. Aukera guztiak mobilizazio potentzial bilakatzeko giltza aurkitzean dago gakoa. Kataluniatik jaso duten ikaspena da instituzioek jendartearen atzetik joan behar dutela, horrek bakarrik eragin ditzakeelako aldaketa errealak.

Abuztuko kanpaldia, argitara jauzia

Abuztuan mugimenduak kanpaldia antolatu zuten Petrosino herrian, Trapani probintzian.

Helburua gaur egungo egoera aztertzeko gogoeta eta elkartruke momentu bat sortzea izan da, eta etorkizuneko programa bat garatzea, independentziaren diskurtsoa edukiz betetzeko. Orain arte ezezaguna izan den proiektua ikusgarri egin eta zabalpen publikorako jauzia egitea ere bazen asmoa. Topaketa hauetan gai asko landu dira asanbladetan. Alde batetik, emakumeen rola askapen prozesuan eta ikasle mugimenduaren artikulazioa, ikastetxe eta unibertsitateetan. Eta bestetik, autodeterminazio prozesuak aztertu dituzte, horietatik atera daitezkeen irakaspenak beraien prozesu propioan txertatzeko. Herrien arteko elkartasunaren ezinbestekotasunaz jakitun, Askapenako eta Endavanteko kideek Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako egoerez mintzatu ziren, eta Kurdistanen izandako kideek hango esperientziak azaldu zituzten. Amaitzeko, aurrera begirako lan-ildoak buruz aritu ziren, borrokaren oinarriak fintzeko.

Antudo oraindik eraketa prozesuan badago ere, gertutik jarraitzeko esperientzia izan daiteke. Euren esanetan burujabetzarako bideak lurralde bakoitzak sortu behar ditu, eta beraien borroka berrasmatzeko gai izan nahi dute: aipatutako erronka guztien aurrean erantzun eraginkor bakarra independentzia dela frogatzea. ■



Herritarren **1,2 milioi euro** egunero bankuen eskuetara doaz Nafarroan

Mundu mailako hurrengo krisi ekonomiko handia herrialdeetan metatzen ari den zor erraldoiaren magalean jaioko dela entzuten da gero eta ozenago. Krisia krisiaren gainean. Adituen esanetan, zorpetzea bultzatzea izan da krisiari aurre egiteko erabili den errezeta nagusia, dirua merke jarriz herritarren eta gobernuen eskuetan. Eta askoz ere merkeago oraindik bankuen eskuetan.



Xabier Letona
@xletona

Orain zorraren burbuila da apurka eratzten ari dena: mundu mailako zor publiko eta pribatua 164 bilioi dolarrekoa omen da, munduko BPGaren %225. Ez da samurra zer kopuru mailaz ari garen irudikatzea ere. Datuak gainera, jaulki dituen erakundearen arabera, aldakorrek dira. Kopuruak kopuru, galdera berez dator: zer gertatuko da halako zor itzelarekin diruaren interesak igotzen hasten badira?

AEBetako Erreserba Federala hasi da dolarraren interes tasak igotzen eta Europako Banku Zentralak ere euroaren interes tasak igoko ei ditu 2019ko erdialderako. Nola eragingo die honek herritarrei eta gobernuei? Dagoeneko, Italia, Turkia eta Argentina moduko herrialdeak krisi gogorak ari dira bizitzen. Munduko herrialde asko erne dira.

Eta Euskal Herrian zer? Denborak erranen du, baina azken hamarkadako musikari jarraituz, beti ere "Españian baino hobeto". Nola hala, gure gobernuek urteetan pilotutako zorra kitatzen

jarraitzen dute. Urriaren amaieran, esate batera, Nafarroako Gobernuak aurten zor publikoaren ondorioz ordaindu beharreko 332 milioi euroetatik azken 60 milioiak paratuko ditu. Zor horrez gain, beste 93 milioi euro itzalpeko bide sarietan ordaindu behar ditu; beraz, aurten 426 milioi euro ordainduko dira zor gisa har daitezkeen kontzeptuetan.

2008ko krisia hasi zenean gobernuek zorpetzen hasi ziren hainbat arrazoiengatik: batetik, zergetatik jasotakoa asko murriztu zelako eta euren aurrekontuak finantzatu behar zizutelako; eta bestetik, bankuak diru publikoz erreskatatu zirelako. Edo besteak beste, arrisku primen haginkadak mihizkatzeko.

Zorra boskoiztu zen

Nafarroan *korralitoo*-ren testuinguruan gizendu da zorra azken hamarkadan: 2008tik 2015eraino UPNko gobernuek zor publiko boskoiztu zuten, 660 milioi eurotik 3.300 milioira. Mailegu horiekin ordaindu ziren irail amaieran atek zabaldu zituen Nafarroa Arena kirol eraikuntza ospetsua, Los Arcoseko zirkuitua, itzalpeko autobideak eta beste hainbat proiektu. Denak UPNk bideratuta, PSN eskutik hartuta.

Horren guztiaren ondorioz, gaur egun nafar bakoitzak 5.150 euro zor ditu. Egiazko datua izan arren, ez dirudi herritarra gehiegi asaldatzen denik. Inor ez zaio bere kontu korrontera joango dirutza hori ateratzera. Ez, zartakoa zeharkakoa da eta Nafarroako Gober-





Parlamentu Soziala plataformak eskatzen dio gobernuari 191 milioi euro kitatzea bankuekin zor bidegabe gisa.

nuak bere urteko aurrekontuetatik zati handi bat zor publikoa kitatzera bideratuko du. Jakina, beste nonbait sumatuko da kolpea: hezkuntza, osasuna, kultura, euskara, inbertsioak edo beste hainbat alorretako gastuen murrizketetan izan ohi da. Adibide zehatzago gisa balio du honek: Nafarroako Kontuen Ganberak 2016an langile publikoez egindako azterketa batean zioenez, 22.681 plazaetatik 5.487 plaza bete gabe ziren oraindik. 2018an Nafarroako Gobernuaren aurrekontua 4.156,6 milioi eurotako da. ELAk salatu duenez, “1,2 milioi euro ordaindu beharko dira eguneko”.

6.000 milioi euroko zor publikoa

Aipatutakoa dira Nafarroako Parlamentu Soziala plataforma edo ELAK Nafarroako Gobernuaren 2018ko aurrekontuen balorazioan erabiltzen dituzten zenbakietako batzuk. Baina 2017ko ekainean Joan Josep Boçek –Parlamentu Soziala– Nafarroako Legebiltzarrean emandako datuen arabera, Nafarroako zor publikoa 6.000 milioi euro ingurukoa litzateke. Horrela azaldu zuen egoera 2015 amaierako datuak erabilita.

Batetik, ohikoan azaleratzen diren datuak daude: 2015aren amaieran gobernuak 3.322 milioi euroko zorra zuen, hau da, urteko bere aurrekontua bai-

no pixka bat gutxiago. Horietatik 1.786 milioi zor publikoaren jaulkipenak dira eta 1.076 milioi banku maileguak. Hala ere, Boçek azpimarratu zuenez, zorra “prentsan azaltzen den hori baino handiagoa da”: Gobernuak baditu 149 milioi euro enpresei egindako abaletan eta Sodenak –abalak eskaintzen dituen enpresa publikoak– beste 340 milioi. Horrez gain, jubilatutako funtzionarioei beste 2.100 milioi euro zor zaie pentsioetan. Hau da, bere esanetan Nafarroako Gobernuak gaur egun ia 6.000 milioi euroko zorra du.

Boçek azaldu zuen 2000tik 2015era Nafarroako Gobernuak 900 milioi euro ordaindu dituela interesetan, batez ere arrisku prima oso altuengatik. Gogor salatu zuen Europako Banku Zentralak (EBZ) nola mantentzen duen banku pribatuen sistema: “EBZk maileguak gobernuetara zuzenean egin beharrean, bankuei egiten dizkie eta gero hauek gobernuetara”. Urte luzez, EBZk %1eko interesa kobratu die bankuei –gaur egun %0– eta gero hauek %5 edo %8 gobernuetara, arrisku primaren arabera. Nafarroako Gobernuak aurten egiten ari den amortizazioetan %5,8 ordaintzen ari da. Galdera berez dator orain ere: orduan, gobernuak zergatik ez diote dirua zuzenean eskatzen EBZri? Debekatua dutelako. Euroa

sortu aurretik, gobernuak eskatzen zieten dirua beren banku zentraleri, baina gaur egun ezin dute.

Kasu zehatzagoak ere azaldu ziren agerraldian. Alvaro Miranda kontseilariak (UPN) eta Enrique Goñik (CAN) *swap* formatuan sinatutako 4,9 milioi euroko mailegua gogor kritikatu zuen Boçekek. Kasu hauetako batzuk zigortu ditu jada justiziak Espainiako Estatuan, argudiatuz bankuen botere abusua egon zela, bezeroak ez zituelako kontrolatzen oso gaitzak diren mailegu molde hauek. “Baina hori ez zen Nafarroako Gobernuaren kasua –dio Boçek–, beraz zer nahi zuen Mirandak, Gobernu kalte-ztea CANen mesedetan?”.

Aldaketaren gobernu definitu zuenarekin haserre zegoela ere aipatu zuen Boçekek bere agerraldian, honek ez duelako inongo zaratarik ateratzen zor ilegitimoaren gaiarekin. *Swap*-en aferarekin zehatzagoa izan zen: “Nafarroako Gobernuaren eskutian utzi ditut bi peritutu txosten epaitegietara eramateko eta ez du ezer egin”; bere ustez kasua ia irabazita legoke.

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com



Nafarroako Gobernuaren aurrekontua 4.156,6 milioi eurokoa da eta aurten 432 milioi euro ordainduko ditu zor publikoa dela eta.

Zor bidegabea: 191 milioi euro

Aldaketaren alderdiek zor publikoa ikertzeko batzordea abiarazi zuten Legebiltzarrean 2016ko hasieran, eta honek Nafarroako Gobernuaren finantzei buruzko datu ugari jarri zituen Parlamentu Sozialaren esku. “Gehiegi guretzat –diote erakundeko kideek–, datuak hor egon arren, ez baitugu gaitasunik hainbeste ikertzeko”. Iazko Legebiltzarreko agerraldian Bosch oso kezu zen eta foru parlamentariei kargu hartu zien zorraren ikerketa ez zuelako Parlamentu Sozialak egin behar Nafarroakoak baino, “halako zerbait egiteko baliabideak berak dituelako eta ez guk”.

Parlamentu Sozialak egindako kalkuluen arabera, legealdi honetan Nafarroako Gobernuak itzuli beharreko zorraren 191 milioi euro bidegabeak dira. Zergatik? Bankuek interes handiegia kobratu dutelako, zorra herritarrek behar ez dituzten azpiegitura garestietara bideratu delako, *swap*-ak erabili direlako, edo *korralitoo*-ren inperioari

eusteko inbertsio okerretara bideratu zelako, besteak beste.

Parlamentu Soziala Nafarroako 30en bat elkartek osatutako elkargunea da eta bere helburua diru publikoaren finantzak kontrolatzea. Behin zor bidegabea kalkulatuta, Nafarroako Gobernuari haren ordainketari uko egitea eskatu dio behin eta berriz, edo gutxienez negoziatu eta kopuru garrantzitsu bat kitatzea. Nafarroako Gobernuak ez du uste hala joka dezakeenik, zor bidegabea aldarrikapen politiko gisa erabili daitekeelako, baina legezko oinarririk ez duelako. Edozein modutan, eta beste hainbat gaitan ere katramilatuta, aldaketaren alderdiek ez dute inongo bultzada publikorik egin foru gobernuari zor bidegabeaz presionatzeko. Eta dagoeneko ez da denborarik, besteak beste alderdi denak direlako maiatzeko hauteskundeei begira.

“Ez bizi zure mailatik gora”

Bitxia da, kapitalismo klasikoak ez du ongi ikusi izan zorpetzearen kontua: “Ez

gastatu duzuna baino gehiago”, zabaldu ohi du lau haizetara. Eskandaluzkoa da nola leporatu zaien klase apalenei “beren mailatik gora bizi izana”. Baina 2008ko krisian ere, bankuek AEBetan arin bideratutako *subprime* maileguetan errun zuten krisia. Eta Espainiako Estatuan ere, higiezinaren burbuila hipoteka “merkeek” puztu zuten.

Zorreakiko mutur luzea itxurakeria besterik ez da, ordea, bazter guztietatik egiten baitu kuku maileguak, batzuetan krisien konponbiderako eta beste askotan krisien akuilu, baina beti kapitalismoaren bihotzean, beti biharko kontsumoa orainaldira ekartzeko prest. Aditu neoliberalak gustuko dutenez esatea, 2008ko krisiaren konponbidearen oinarrian egon da zorra, baina zeruertzean ageri den hurrengo krisiaren oinarri ere bada. Hazkundera moteltzen hasi dela, interesak gora egingo duela, Nazio Diru Funtzaren deiadarra gerrikoak estutze... Ez gara krisi batetik atera eta beste baten oihartzunak dardara barreiatu du han-hemenka. ■

“Erakundeetan **emakumeon eskubideak** babestu ezean, iraultzak ez du emaitzarik izango”

Faiza Abdi Kobane kantoiko kurduko Legebiltzarreko presidentea da, eta hango gonbidatuen etxean ongi etorria egin zion Durangotik joandako ordezkariari. Emakume hurbila, beroa eta alaia da. Munduan barrena ibilitakoa, Sobietar Batasunean eta Espainiako Estatuan izan da, bestek beste. Gerra hasi baino lehen Siriako hiri modernoetan bizi zen, orain, Rojavan lan egiten du buru-belarri: “Ez dut ezer faltan sumatzen, Kobanen gizatasuna dago nonahi”.



TESTUA:

Aitor Aspuru Saez

Zein da zure kargua kurduen administrazioan?

Emakumeen Kontseilu Legegileko presidentea naiz eta Kobaneko eremuan legeak ezartzen ditugu. Lehenengo aldia da bertako herritarrok agintzen duguna gure lurraldean, eta arauak sortzeko beharrea gaude. Sistema berria ezartzeko oinarriak eraiki behar ditugu. Hori izan da gure betebeharririk handiena Siriako Erregimena joan zenetik, antolatuta behar izan dugu dena jendearentzat.

Nola osatu zenuten organo legegilea?

2013an hasi zen lehenengo aldiz gure herria agintzen zonaldean eta hauteskundeak egin genituen herrizka bakoitzean, baita Kobane departamentukabanatu ere; ekialdekoa, hegoaldekoa eta mendebaldekoa. Eta erdian, Kobane hiria. Gune bakoitzean hauteskundeak egin eta kontseiluak osatu genituen; Kobaneko Kontseilua. Hori guztia 2013an egin genuen.

2013ko hauteskundeen emaitzetan oinarrituta abiatu genuen Kontseilua eta 61 lagun hautatu genituen. Ni horien artean nengoen eta gero ni presidente izatea erabaki zuten, gizonezko batekin batera. Lau urte igaro direnez, hauteskunde berriak egin beharko ditugu. Baldintzek ahalbidetzen badigute, jakina.

Zein da legeak egiteko prozesua?

Lehenik eta behin herriak dituen arazoak detektatzen ditugu. Adibidez, trafikoan. Gaia ikertu ondoren, bilerak egin eta emaitzak alderatzen ditugu. Behin legea idatzita, hiru aldiz berrikusten dugu. Horren ostean, gure ministerioek ezartzen dute eta elkarteekin eta komunekin batera lantzen dute. Abokatuak ere tartean daude gu laguntzeko.

Gai guztietan arautzen da?

Badira gaiak legerik ez dutenak behar, baina beste batzuk funtsezkoak dira, eta horietan arauak garatzen ditugu; trafikoan, osasunean, eta abarretan. Adibi-

dez, emakumeentzako legeak sortu ditugu. Horrek zailtasunak ekarri dizkigu, gizartearentzat oso errealitate berria delako, baina guretzat ezinbestekoa da. Bileretan ere arazoak daude, zenbait gizonezkoek ez baitituzte onartu nahi.

Esaterako, Kontseiluan bertan, alderdietako bost ordezkariak –ez gizarteko ordezkariak, baizik eta alderdietakoak– argudiatu zuten sistema berria zela eta beldur zirela, lege horiek hondamendia ekarriko zutelako. Kontseilu Legegilearen hiru bilera egin genituen eta gizarteko jende askorekin batu ginen; biztanleekin, Kongreya Star erakunde feministarekin... Zonalde osoa bisitatu genuen eta guztiak konbentzitzeko ahalegina egin genuen, nahiz eta batzuekin ez lortu, emakume zein gizonezkoekin. Hala ere, esango dut guretzat garaipena izan zela jende gehiena lege horiek ezartzearekin bat etortzea. Hala ere, zailtasunak egon dira hori praktikan jartzeko. Etengabe sumatu dugu hori, jendearen ohiturak aldatzea ez da xamurra. Alabaina, apur-



AITOR ASPURU SAEZ

ka-apurka lege arrunt bilakatzen ari dira, beste hainbat arauen artean, eta hori aurrerapauso handia izan da guretzat.

Nola uztartzen dira komunen autonomia eta legeak? Talka egiten al dute?

Guk edozein lege ezarri baino lehen lantzen dugu. Adibidez, batzuek, emakumeen legea bezala, talka egiten dute komunitateen ohiturekin, baina ikertzen dugu, bilera handiak egiten ditugu dena jendeari azaltzeko, komunikatzen gara eta harremanetan gaude. Saiatzen gara jende oro konbentzitzen onura orokorrerako legeak badira. Baina ez bada horrela, ez badira interes orokorreko legeak eta jendearekin talka egiten badute, atzeratzen ditugu edo ez ditugu ezartzen.

Oztopoak daude, baina ulertu dugu zein den gure betebeharra: Kobaneren suntsiketaren ostean, legeak garatu herritarrak laguntzeko; etxeak berriro eraikitzeko, autoak konpontzeko... Horretan zerbait egiteko aukera badugu, egin egingo dugu.

Nola sortu duzue emakumeen legea eta nola garatu duzue?

Emakumearen legea gizarteari berari lotuta dago. Emakumeok buru-belarri sartuta gaude giza esparru orotan. Guk ikasi eta ikertu ditugu iraultzak, sobietarra, adibidez. Emakumeek parte hartu zuten, baina bukatu zenean etxera itzuli ziren. Guk uste dugu zerbait egin behar dugula gure kabuz, emakume gisa, etxera ez itzultzeko behin iraultza egin eta gero.

Emakumeok gizonezkoek baino gehiago sufritu dugu. Galdu ditugu senarrak, seme-alabak, etxeak... dena. Ziurtatu dezaket hainbat belaunaldik etorkizuna ere galdu dutela. Iraultzaren ostean ez baditugu gure eskubideak babesten erakundeetan, zer irabazi dugu? Guk iraultzaren parte izan behar dugu, urratsez urrats, eta gure eskubideak praktikan jarri beharra dago. Lehenik eta behin, gure oinarrietan, horregatik bi presidenteen sistema dugu; emakumezkoa eta gizonezkoa. Eredu guztietan egon behar dugu emakumeok; ekonomian, politikan, irakaskuntzan, osasunean...

baita YPGn (Herriaren Autodefentsarako Unitateetan) zein YPJn (Emakumeen Autodefentsarako Unitateetan) ere.

Erakundeetan ez baditugu babesten gure eskubideak, iraultzak ez digu emaitzarik emango. Legerik ez balego, ezingo genukeen gizarteratu. Hori da emakume politikari edo feministen artean esaten duguna. Oinarriak ez dira nahikoa, beharrezkoa da gizartean zabaltea. Ideia horrekin hasi ginen emakumeen legea garatzen.

Zeintzuk dira lege horren artikulugarrantzitsuenak?

30 puntu ditu eta guztiak dira garrantzitsuak. Bat ez da bestea baino funtsezkoa, guztien helburua baita berdintasuna eskuratzea, justizia sozialaren ikuspegitik. Puntu guztiak elkar-osagarriak dira.

Baina batzuk agian deigarriak dira Mendebaldeko herritarrentzat. Adibidez, poligamiaren aurkakoa.

Egia esanda, lege horiek ere existitzen dira Europan, gizonezkoak ezin



Ezkerreko argazkian, Faiza Abdi. Estatu Islamikoak 2014ko irailean ekin zion Kobaneko erasoaldiari. Kurduak 2015eko urtarrilean irabazi zuten gudua. Siriako kurduak hiru gune autonomo eratu dituzte, tartean, Kobane.

dira ezkondu emakume batekin baino gehiagorekin. Gure azken xedea da berdintasuna lortzea gizonezkoen eta emakumezkoen artean.

Horregatik gure legeek bermatzen dute emakumeen esku egotea dibortziaztea, lehen gizonezkoek soilik zeukaten eskubide hori, guztiz berria da. Orain emakumezko ezkongabeek edo dibortziazteak izan dezakete familia, eta hori guretzat garrantzitsua da. Gainera, emakumea banatzen denean, haurrak berarekin geratu behar dira.

18 urte ez dituzten neskek ezin dira ezkondu. Neska bat ezkontzen badute 15 edo 14 urterekin, bere aita atxilotzen dute. Guretzat, mutilek zein neskek izan behar dute aukera ikasteko. Hori ez bada bermatzen, familiak zigortzen dira. Eta jakina, ezin dute emakume gazte bat ezkontzera behartu.

Aldi berean, ezkontzen direnek, etxerako erosten dutena erdibana ordaindu

behar dute, lehen gizonezkoek prestatzen zuten dena. Horrela, banatzen direnean, norberak bere ondarea hartuko du. Horrez gain, emaztea edo senarra hilez gero, bikotekideak sei hilabetez itxaron beharko du berriz ezkontzeko, errespetua adierazte aldera.

Bestalde, gure gizartean ohitura da, emakume batek umerik ez badu, gizonezkoak beste batekin ezkontzeko eskubidea izatea, baina orain gure legeek hori debekatzen dute. Hala ere, gizona ezkontzen bada, hiru hilabeteko espetxealdia izango du.

Siriako Erregimenarekin hasi ditu negoziazioak administrazioak. Non dago emakumeen legea hor?

Gai askok banatzen gaitu: sozialak, energetikoak, osasuna, armada... Edonola ere, Siriaren etorkizunean organo legegile berria osatu beharko da, konstituzio berria idazteko, eta han kurduak,

arabiarrek eta Sirian bizi diren beste komunitateek ordezkaritza izan beharko dute. Horren ondorioz, lege berriak ezarriko dira, ez gureak, ez haienak. Hori gertatu arte, gure lurraldean guk sortutako arauak baliatzeko eskubidea daukagu.

Siriako Erregimenak ez du emakumeen legerik, baina bere konstituzioa irakurtzen baduzu, emakumezkoen berdintasuna aipatzen da. Hori bai, teoria besterik ez da, praktikari erreparatzen badiozu, ez dago horrelakorik. Aldiz, guk legeak garatzen ditugu praktikara eramateko gaitasuna daukagun neurrian.

Siriako etorkizun politikoa ez dago argi. Nik esaten dizut gu borrokatuko garela emakumeen legearen alde, emakume gisa, ez kurdu edo arabiar bezala. Emakume siriarrak borrokatu eta erresistitu beharra daukagu, dagozkigun eskubideak bermatzeko etorkizuneko Sirian. ■

Atlantikoa eta Mediterraneoa



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

ARGAZKIA: ANDRIKKOS

Klima mediterraneartzen ari zaigun honetan, agian uztaren onerako behinik ere etxekotu beharko genuke ereinotza.

Euskal Herri atlantiarreko lurretan uzta handiena dakar udazkenak: artoa, babarruna, kuia, sagarra, intxaurra, gaztaina eta abar. Fruitu eta hazi horiei ahalik eta luzeen onik eustea izan da nekazarien lanik zailenetakoa. Udazkena bera eta batez ere negua gozatuko duten jakiak dira. Ondo helduta behar den sasoiari bildu, mailatu gabe, zauririk egin gabe, ondo lehortu eta ahalik eta luzeen iraurarazteko toki egokienean jaso: iluna, haizeberritzen dena, hotza eta lehorra.

Gure negugoa elikatu eta gozatuko duten uzta horiek beste batzuen ere osa dezakete. Har, zomorro eta gurgurio asko ibiliko da goseak jota zer jan topatu ezinik. Onddoek ere bazka behar dute negualdian. Horiek denak gure uztaren biltegietara ez iristea, eta iritsiz gero ahalik eta azkarrena uxatzea da helburua.

Ereinotzak edo erramuak lagunduko digu. Kanarietako La Lagunako Unibertsitatean ondu duten lan batek dioenez, erramuak dituen olio esentzia aromatikoei hiru lan egiten dituzte jaki biltegietan: intsektuen eraso mantso, ondoren ugaltzeari eutsi eta laboreak badira aleen erretzea geldia. Han badute berezko ereinotz bat, *Laurus novocanariensis*. Horren eragina ederki neurtu dute arkeologoek mila urte dituzten bihi-biltegietan: aleak babesteko ereinotza jartzen zuten tartean. Uharte horietan eta Makaronesia osoan erramua nagusi den baso ekosistema bereizi bat dute, laurisilba deitzen dena, "erramuaren baso" alegia. Baso horren tankerako arrastoak ditugu gure lur atlantiarretan, baina geurean erramu arrunta dugu, *Laurus nobilis* mediterranearra alegia.

Gure kultura ez da erramuzalea, mediterranearek askoz gehiago erabiltzen dute. Baita txingurriak, arropako sitsak, pipiak eta abar uxatzeko ere. Etxea babesteko kristauk erramua bedeinkatu egin behar dute; geure atarrietan jartzen diren lizarra (*Fraxinus excelsior*) eta elorriak (*Crataegus sp.*) berez dira "bedeinkatuak". Klima mediterraneartzen ari zaigun honetan, agian uztaren onerako behinik ere ikasi egin beharko genuke eta ereinotza etxekotu. Izan ere uzta salbatzen duelako gurtuko dute ziur aski, eta guk txapela jartzen diogunari han ereinotz koroa edo erramu boneta jarri. Hala ere, uzta hori jateko orduan lapikora ereinotza sartzera iristea kostako zaigula iruditzen zait. Izan ere, kultura atlantiarra da geurea. Boneta artilezkoa. ■

LARRUN KOOPERATIBA

Urruñan saltoki ekologikoa helburu



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Apirilaz geroztik astero elkartzen dira Larrunkoop proiektuko kideak Urruñako Posta gelan. Zertarako? Tokiko ekoizpenak eta produktu ekologikoak salgai egonen diren kontsumitzaileen kooperatiba sortzeko. Proiektuaren oinarriak zehazten aritu dira azken hilabeteetan, eta urriaren 12an egingen dute egitasmoaren aurkezpena. Hortik aurrera, martxan jarri nahi duten denda irekitzeko jendea biltzea espero dute.

Tokikoak eta ekologikoak lehenetasuna

Inguruan dituzten antzeko proiektuak eredu hartuta -Labore edo Otsokoop, esaterako- beren bideari ekitea erabaki

zuten Urruñako hainbat lagunek. "Beharra badago beste modu batez kontsumitzeko, egun daukagun aukera ez zaigulako gustatzen eta beste zerbaiten bila gabiltza. Bestela ez lirateke hainbeste proiektu martxan jarriko alde guztietan", zioen Adélaide Daraspe Larrunkoop proiektuko kideak Antxeta Irratian egindako elkarrizketan. Urruñan herriko epizeria salgai zegoela jakin zutenean hasi ziren hainbat lagun biltzen, jendearengana zabaldu eta proiektua sortzeko. "Gure epizerian ez da soilik jatekoa egonen, egunerokoan behar dugun guztia egonen da", azaldu zuen Arturo Villanueva kideak. Eskainiko dituzten produktu horien artean, ahalik

eta gehien tokikoa eta biologikoa izatea da euren printzipioa. "Nahi dugu ongi jan prezio justuetan, bai guretzako, bai ekoizleentzako, bai ingurumenarentzat. Ez bizitzarekin negoziatioa egitea".

Urriaren 12an hitzordua

Urriaren 12an egingen dute egitasmoaren aurkezpena Urruñako Itsasmendi Zinemaren. Kooperatibako kide izateko 100 euroko ekarpena eta hileroko hiru ordu lan komunitario eskaini beharko dira. Dendak noiz irekiko dituen atek? Urte berrira begira daude, baina bultzatzaileek diotenez, "dena ditugun esku eta burmuin kopuruen arabera izanen da". ■

ALIMENTOS ECOLÓGICOS DE NAVARRA

eko-logikoak
para vivir mejor!

tu compra ecológica
MÁS CERCA DE TI
ORAIN ASKOZ
HURBILAGO DUZU
zure erosketak ekologikoa

LESAA
Lidax
Orriak, Albarico eta Olibanburu

LEITZA
Balega

ELIZONDIO
Del Espin Herbolandemika

SANTESTEBAN - DONOSTIA
Kontsumo Baita-Orriak

JAINTSARATS
Aparicioherriko Terneta

URRUIJUN - URRITZUN
Urriak zaratzeneta

ARIZTEGI - V. ATZ
Carreras Lurpak

ALSAIA-ALTSASU
Lorria

BERRIOZAR
Ela Biodeketa

PIJENTE LA REINA - GARETS
Sakagorri
Supersari

NOAIN
Uhor La Bi

SANGUESA
Past. Anaitzeta

TAFALLA
Euzume
Kubal Sola

ESTELLA - LIZARRA
Eko-Berritza Natur. Dendak SAHA

OLITE - ERRIEKO
García Beroa

LUJE - LUJE
Pastas Lujeak

FALCES - FALTZES
Ekoizpena Arrosak
Carreras Arrosak

PERALTA - AZKOEN
Hortakotzen, Nutrición y Salud

TUDELA - TUTERA
Ekoizpena Naturalak
Herbolandemika
La Espiga De Oro

HAMPLONA - HUNEIA
Akelia
Belarra
Beltzua
Borrika
Beltza
Beltza Naturak
Beltza Belandemika
Charkite
Enbata
Platos Tropikoak
Gatibak
Gorropu
Gorropu
Jentes
La Vinoteca
Lantara
Lutakak
Lutakak
Macadamiak
Mandorak
Mandor. Big
Murtin S.L.
Orriak
Santak
Sintak
Sintak
Sintak

ANSOAIN - ANTSOAIN
Orriak

IBURILADA - BURJATA
El Ekoizpena

HUARTE - UHARTE
Viveros Zokoa Barakok
HUPAGAÑA - ERRIKAGAÑA
La Frutería De Baramera
SARRIDUREN
Eskak

VILLAVA - ATARRABA
Lantara

ZIZUR MAYOR - ZIZUR MAYOR
Frutería Orriak

Asociación Eikartza **Ecoienda Ekodenda** **Herboristeria Belar-denda** **Vinoteca Artologia**
Carnicería Harategia **Frutería Fruta-denda** **Tienda Denda**

www.cpaen.org
www.navarrakologia.org

azoka

NOLA SALDU GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" botoia. Bost minutuan jar daiteke edozer salgai Interneten, denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko komunitatearen arteko harremanak indartzeko, besteei zerbait emateko aukera dugu. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eus/azoka · t @argiaAzoka

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

87
salgai

EUROPAKO HERRIEN MAPA

Europa mapa gehienek erakusten digutena baino anitzagoa eta ederragoa delako, eskura ezazu herrien mapa. Etxeetan eta ikastetxeetako geletan ere ezinbestekoa behar lukeen materiala da.

Herri bakoitzaren izena bertako hizkuntzan idatzia topatuko duzu, eta azpian guztiak euskaraz.

Neurriak: 84 cm X 59 cm.

Tutu batean sartuta bidaliko dizugu.



15 euro

Urriaren 18an, 10:00etan...
ARGIA Jendearentzat musutruk jarriko ditugu **argia.eus/azoka** webgunean. Ez da zozketa, azkarren ibiltzen denak eramango ditu!

34
gai
musutruk



Bizi Baratzea lamina 27 eta 28

Antton Olariagak eta Mattinek kartoi gogorrean eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 cm.



Bilboko Kafe Antzokian bazkaria

Bi lagunentzako bazkaria.

2019ko dosi txikiak



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

ARGAZKIA: DANI BLANCO

ARGIaren egutegia. Ez ditu astekariak bezainbat urte izango, baina klasikoetako bat da etxe honetan. Eta jarraitzaile klasikoentzat droga gogorra den moduan “engantxatu” nahi ditugu berriak ere informazioaren monodosi hauetara. Hartzea sekula ahaztuko ez duzun eguneroko pilula.

Asko dira urte berriari ekin aurretik Durangoko Azokan beren “takoa” erosten dutenak, azkar bukatuko direnaren beldur. Gutxi izango dira menpekotasuna kontrolatu eta urtarrilaren 1era arte zain egotea lortzen dutenak, egutegiaren atzealde bakar bat ere begiratu gabe. Bada, laguntza txiki bat emanango dizut, irakurle, 2019an sartu arteko hiru hilabete hauek ARGIAren egutegia kuxkuxeatu gabe pasatzea arinagoa izan dagizun. Dena sekretuan gorde beharrean, datorren urtean topatuko dituzun gaiak zein izango diren jakin nahi?

Mendeurrena izango da protagonistetako bat. Honezkero irakurria izango duzu han edo hemen ARGIA 1919-2019 edo antzekoren bat. Ez duzu aukera gal-

du, eta ARGIA eta Zeruko Argia zaharretan murgildu gara, hauts artean, aldizkariko azal (gure ustez) esanguratsua berreskuratzeko. Gai izango al zara irudia ikusita urtea asmatzeko? Bertsoek ere beti izan dute lekua astekarian, irakurleek bidalitakoak bezala kolaboratzaileek idatziak, eta ehun urteotako bertso guztiak aurkituko ez badituzue ere, bilduma txiki bat osatu dugu orduko idazkera eta hainbat gai eta kezka ezagutzeko.

Ehungarren urteurrenaren ospakizuna ez da egutegian bakarrik islatuko, eta ez duzu gai berarekin beteko urte osoa. Irakurriko duzu Euskal Herriko etxeen eta itsasargien, estaturik gabeko nazioen, landareen edo euskararen erabileraren inguruan, ezagutuko dituzue gure herriko zenbait bazterretako esaeira zaharrak, barre egingo duzu 2018ko Beranduegiren bildumarekin, eta jolas egingo duzu perretxiko, kultur edo kirol kontuetako tribialekin.

Pista hauek izanda lortuko al duzu 2019ra arte egutegia plastikotik atera gabe edukitzea? ■

ARGIAko kide egiterakoan emandako arrazoia

“Hedabide euskaldun eta independenteak behar ditugulako, mundua gure ikuspegitik ulertzeko”

Galder Ibarra Vera (Bilbo)

ARGIA Jendea

“Horrelako medio batek guztion bultzada behar duelako, herri mugimenduak horrelako medioak behar dituelako”

Eneko Villegas Amezketza

(Atarrabia)

ARGIA Jendea

“Aldizkari euskalduna da eta munduko egoera sozialen ikuspegi kritiko eta interesgarria pizten du. Pentsarazi egiten dit eta gauzekiko kontzientzia garatu”

Nerea Goenaga Zangitu (Bergara)

ARGIA Jendea

“Proiektua babestea eta informazio librea jasotzea”

Iker De Luz Colás (Bartzelona)

ARGIA Jendea



Proposatu ARGIA Sarietarako hautagaiak:

Bidali oirureta@argia.eus helbidera alor hauetarako hautagaiak: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekintza eta merezimenduzkoa. ARGIAko lantaldean osatzen dugu epaimahaia, eta zuek bidalitako hautagaiak zuzenean zerrendara sartzen ditugu.

LUXUZKO BABESLEKU FRANKISTA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Bartzelona, 1939ko maiatza. Teresa Amatller (1873-1960) filantropoa eta Antoni Amatller txokolategile ezagunaren alaba etxera itzuli zen, Espainiako Gerra Zibila amaituta. Horixe dio Walter Cook hispanista estatubatuarrak Josep Gudiol Teresaren arte aholkulari errepublikazaleari data horretan bidalitako eskutitz batek. Berriki, Guillem Cañameras historialariak bien arteko lau gutun aurkitu ditu eta *Sapiens* aldizkariak eskusiban eman du horien berri. Testu horiei esker dakigu, uztailaren 18ko altxamendu militarrek Katalunian porrot egin ondoren, Amatller Turinera joan zela ihesi, 1937ko uda Parisen igaro zuela, baina urte hartako urriaren 4an dagoeneko Donostian zela eta han geratu zela gerra amaitu arte.

Teresa aitaren txokolate enpresako eta Passeig de Gracian dagoen Amatller etxeko oinordekoa zen -Amatller etxea Josep Puig i Cadafalch arkitektoaren obra modernista da, Antoni Gaudíren Batlló Etxe ezagunaren ondoan dago eta bisitarientzat irekia dago egun-. Ondasunak konfiskatu eta etxea espoliatuko zioten beldur egin zuen alde Kataluniatik eta, beste 60.000 katalanek bezala, lurralde frankistan hartu zuen babesa.

Donostia erraz erori zen frankisten eskuetan 1936ko irailean. Gerrak ez zuen hondamen handirik eragin erai-



Teresa Amatller (ezkerrean), goi burgesia katalaneko beste hainbat kide bezala, frankistek hartutako Donostian babesatu zen gerra garaian. Eskuinean, 1936ko irailean hiria faxisten esku geratu zenean.

CORDON



kinetan, baina *Unidad* egunkari falangistaren arabera, donostiaren %48k hiritik ihes egin zuen frankistak sartu zirenean. Madrildar eta, batez ere, katalan askok zona errepublikarretik ihesi Gipuzkoako hiriburura jo zuten orduan. Errepublika baino lehen errege familiaren udatoki izana, goi-burgesiaren babesleku bihurtu zen.

Teresa Amatllerren egonaldiaz ez daukagu xehetasun handirik, "lagun batzuen etxean" geratu zela besterik ez. Baina zona nazionalen babesa hartu zuten gehienak ez ziren falangistak eta ez zuten profil politiko zehatzik. Kontserbadoreak eta katolikoak ziren, eta haien kezka nagusia estatus sozial eta politikoari eustea zen. Eta gerra ahalik eta modu erosoenean pasatzea. Niza,

Biarritz, San Ignacio, Hispano-Americano edo Príncipe de Saboya hoteletan bizi ziren asko. Gros auzoko etxeetan beste asko; hainbeste katalan hitz egiten zenez, auzoari Barceloneta esaten omen zioten. Gozotegietan *panelletak* saltzen zituzten eta urdaitegietan butifarrak.

Eta hirian ez zen soilik kultura gastronomikoa zaintzen; *La ametralladora* eta *Vértice* aldizkari falangistak bertan argitaratzen ziren eta, hala, hiria frankisten kulturagune nagusia izan zen gerra garaian. Gerra amaitzean, Teresa Amatller eta enparauak etxera itzuli ziren atzean utzitako jardunari berriro heltzeko. Baina Donostiak urte haietan izandako "loraldia" gainbehera zetorrela zirudie-nean, Francok erabaki zuen udak igaroraitzeko jauregian igaroko zituela. ■



"Y viva España".. edo Belgika... edo Italia...

1973an Manolo Escobarrek *Y viva España* pasodoblea argitaratu zuen eta, orduz geroztik, Espainiako himno ez ofiziala bihurtu da. Baina abestia ez da espainiarra. Bi belgikarrek konposatu zuten *Eviva España* 1971n (Leo Caertsek musika eta Leo Rozenstratenek hitzak) eta Espainia turismo gune gisa goiraipatzen zuen. Gainera, belgikarren lan

horrek abesti zaharrago bat izan zuen jatorri: 1936ko gerraren urteetan Italiako faxistek falangisten alde konposatutako *Arriba España*.

Hori gutxi balitz, Manolo Escobarrek gaztelarazko bertsioa atera baino lehen, abestia nederlanderaz, alemanez, norvegieraz, frantsesez, danieraz eta suomieraz argitaratu zuten. ■

Lau teilatu

HITZEMAN ZORION BATEN MELODIA

Iluna. Euria jaits ahala kanpoan. Jendeak jauzika alde orotatik. Oihuka. Begiak tauladako mugimenduetan josiak. Gitarra zafraldi bikoitza eta hor hasten da Juan Carlos Perez kantari: *hemen gaude ta poztutzen naiz...* erretzen genuen orduan eta bata bestearen kontra tinkatuz, pizturiko briketak edo metxeroak altxatzen genituen, abesti baten magiaz zoriona hitzemana balitzaigun bezala!



Itxaro Borda

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Berrogei urte ospatzen ditu aurten, Itoiz taldeak Euskal Herriari oparitu zion perlak. 1978an grabatu zen *Lau teilatu*, Donibane Lohizuneko Bacchanales estudioetan, sortu berria zen Xoxoa disko-etxearen eskutik. Gaur egun bertsiotik ezberdinak kausitzen dira: Mikel Erentxun (Duncan Dhu) eta Amaia Montorok (La Oreja de Van Gogh) sartu zuten Gaztea irratia diskotekarekin eta EH Sukarrak atzamar kementsuz berea eskaini zigun. Baina Juan Carlos Perezen hitzen zuku mikatz samurraren zaporea atera zion Joseba Irazokik behin, Itoiz omentzen zen arrats batez Bilboko Kafe Antzokian, Loraldia ekitaldiaren baitan. Han hemen, bestak bukatzean entzuten dira beti, zintzurak haustear, gaua urratzen duten *Lau teilatu* eresiarren oihartzunak *edozein herriko jaixetan*. 2016an San Mamesen Eibar-Athletic partidaren aurretik Sociedad Coral de Bilbao koralak eta berrogei mila jendek komuniatu zuten *goxo goxo kanta egin nazu xuxurlatzean*.

Aiherran edo Garazin izango zen. Itoiz etorri zen, taldearen izen bereko album ubelaren presentatzera Iparralde honetara ere. *Lau Teilatu* aditu eta berehala sartu zitzaigun garunetan. Ez dakit zer genuen orduan hain zoritxarreko sentitzeko, *bihar hilengo naiz* orroaz ibiltzen ginen eta Mutriku-Ondarroako

boskoteak hitz ematen zigun zorionaren premia gorria aldarrikatzen genuen garagardo, sagardo eta kalimotxo artean. Kanta, katartikoa bide zen, taumaturgoa, hau da sendagarri antzekoa, egiazki beharrezkoa genuena. Hegoaldean Franco hil ondoko trantsizioa zen, euskal mugimendua ezbaian zebilen, batzuk borroka armatua abandonatu eta besteek are larriago eragin zartagai-lu eta tiroei. Zalantza beteriko garaia zela nehorik ez du ukatuko eta baldintza horietan *felix, felix* bihar egoteko promesak, gantzak bezala, bihotz-gogoetan on egiten zukeen.

*Hemen gaude
ta poztutzen naiz
ta ziur zure aita ere bai;
ta zer ondo... zelan dijua
zure bufanda txuria?*

Oraindik ere, –duela gutxi Bilboko Aste Nagusiaren karietara Abando tabernan geundela egiaztatua–, aski du batek *hemen gaude* murmuratzea, kasik abesti osoa mihi petik lerratzen senditzeko, iturriaren pare beti berria bailitzan. Juan Carlos Perez, Jose Garate alias Fois Jauna, Jose Antonio Fernandez, Estanis Osinalde, Joseba Erkiaga flautan, German Ors, beranduago Jimmy Arrabit bateria jole ospetsua eta hondar

aldera Jean Marie Ekay eta Xabi Pery ari izan ziren Itoiz taldea osatzen. Musikari bakoitzak bere ziguiluz markatu zuen Itoizen hamar urteko bilakaera. 1974an sortu zen Indar Trabes multzoaren jarrapena hartu zuten, dantzaldiak animatzen orduan nahikoa modan zen rock progresiboaren eta sinfonikoaren soinuak gure bazterretan hedatzea pasatuz.

Juan Carlos Perez (1958, Mutriku) izan zen Itoiz taldearen arima eta burua. Hitzak eta melodia gehienak berak izkiriatu zituen, baina debuteko diskoetan Joseba Alkalde poeta lekeitiarraren izena aurkitzen da, bai eta geroago Jose Mari Argoitiarena eta Bernardo Atxagarena ere, letra egileen artean. *Lau Teilatu* osoki Perezen dohainetik isuri da. Imajinatzen ditugu gazte huts batzuk euskal kostaldeko hegats batean arrats apalean, lasai, etzanik, lau teilatu dituztela begien mugan eta ilargia erdian, batek gitarra dauka eskuetan eta besteak atabala jotzen du, flauta kokin bat airean dabilela, porroak elkarri luzatzen dizkiete, ezpainak borobildu eta kea botatzen, bizitzaz gozatzea helburu soil. Errepikak irudimenaren ezintasun hori pixka bat hausten du, garrastan, ez direla erabat zoriontsu ikasten dugulako, edo behintzat etorkizuneko zoriontsuago izatea desiratzen dute:



*Lau teilatu gainean
ilargia erdian eta zu
goruntz begira,
zure keia eskuetan
putzara batekin... putz!
Neregana etorriko da
ta berriz izango gara
zoriontsu
edozein herriko jaixetan.*

Ez dakigu kantariak aipatzen duen zu hori nor den, gizonezkoa ala emakumezkoa. Agian bost axola. Irakurketa ezberdinak egiten ahal dira. Eta noski egin direla! Kantan azaltzen da aita bat, absentea, eta zu pertsonaiak negar egiten du, entzule bakoitza izan daiteke, malloak kolorea kentzen diola! Aita preso, edo urrutian ihesean, irudikatzen urrats bat baizik ez zen.

*Goxo goxo
kanta egin nazu
Benitoren Maria Solt.
negarrrik ez
txuri zaude ta malloak
zure kolorea kentzen dute.*

Lau Teilatu perlak ez du zimurrik hartu. Hor daukagu lehen aldiz aditu genuen bezain fresko, halako betikotasun hunkigarri batean hormatua. Belaunaldi berriek ikasten dute garaikidea bailuten! Egia erran, alde horretatik, euskal kanten baltsan sartzen da, hitz gutxi, denak funtsezkoak, ezin zaio jada bakar bat aldatu bere oreka lanjerrean eman gabe, izpirituak berehala gatibatzen dituen musika erakargarria baita. Harra-patu gintuen eta belaunaldiak harra-patzen segitzen du. Ez da debaldetan bigarren postuan sailkatu ETB kateko 2005eko Euskal Kantarik Onenaren lehiaketan, justu Xabier Leteren *Xalbadorren Heriotzean* (1978) ospetsuaren gibeletik. Abesti horiek egileak dituztela ahanzten goaz eta dagoeneko fruktotan herrikoi gisa aurkezten zaizkigu.

Benito Lertxundiren *Maria Solt* dator lerro mutur batean buru-muinak harrotzera. *Lau Teilatu* mugarri bat finkatzen du aitzineko kantautore belaunaldiaren eta etorriko den pop-rock zaleen artean. 70eko hamarkadan euskal kantagintza elektrifikatu zen Niko Etxart eta Errobi taldeko Anje Duhalde eta Mixel Ducauri esker. Halaber, Hegoaldeko folk abeslariak akustikoaren munduan pixka bat hertsian ziren eta

Izukaitz edo Haizea bezalakoek bide berriak bilatzen zituzten, folk musika rock sinfonikoarekin uztartzen saiatuz. Itoiz arrago horretatik dator, Foisis jaunna taularen eskuin aldean eta flauta soinuaren presentzia harrigarriarekin.

Benito Lertxundi (1942, Orio) euskal kantaren pizkundearen izarretako bat izan da, Ez dok Amairu multzoko kidea. *Zenbat gera* bezalako sorkuntza propioak eskaintzeaz gain, Zuberoako tradizioetik edan zuen ausarki, bartzuen gustuko zuberotar ahoskera doi bat trakestu baldin bazuen ere. *Maria Solten* bertsioa 1975eko ... *Eta maita herria* izeneko albumean kausitzen da. Etxahun Barkoxeko (1786-1862) bertsolari minbera eta ironikoaren koplak zituen Lertxundik gaurkotu, soinu airoso batez apaindurik. Maria Solt eta Kastero adin mardoan elkarrez maitemindu eta haurra espero duen bikote antzuaz trufatzen da Etxahun zaharra. *Lau Teilatu* halatan mendeen arteko lotura da, katebegi garrantzitsua.

*Felix, felix bihar
berriz egongo gara
txanpain apur batekin;
diru gabe baina
izarrak gurekin daude,
piano baten soinuaz.*

1980ko hamarkadan Euskal Herriko egoera gogorra zen. Euskal Rock Erradikala deituko zen bolearako taldeak ari ziren jada taula gainak punk moduan astintzen. Polizien errepresio eta bortizkeria giro orokorra salatzen zuten, zintzurak eman ahala, lehen batean erdaraz eta aski laster euskaraz ere bai. Denbora haietan, beste alor anitzetan bezala, hautatu beharra zegoen: Itoiz zalea zinen eta beraz politika saihesten zenuen edo demagun Hertzainak-en jarraitzailea zinen eta gauzez gau *bakean utzi arte* oihukatzen zenuen, Euskal Herriaren etorkizun askea desiratuz.

Euskadi Irratiko Faktoria emankizunean, 2018ko maiatzaren 5ean, *Lau teilatu* aipatzean, Juan Carlos Perezek zioen: oso biluzik sentiarazi

nau. Hain da sintzeroa, benetakoa, hain nerabea... berrogei urteren buruan, berretzat kanta ona da, zirkularra. Dirurik gabe ibiltzera kondentatuak izanagatik, piano baten soinua, txanpain apurra eta zorian adiskidetsua hitz ematen zigun abestiak. Ez genuen aukeratu, eta ororen buru, *Lau teilatu* horiek ditugu dagoeneko geriza eta bake ikur *edozein herriko jaixetan...* ■



KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Urratsez urrats egiten da bidea



Amaia Alvarez Uribe

Badago zientzia-fikziorik (Zi-Fi) euskaraz? Zi-fia idazten duen emakumerik? Zi-fi feministarik gure liburuen artean?

Duela bi asteburu Bilbon AnsibleFest izan zen: I. Zientzia-fikzio Feministari buruzko jardunaldiak. Lehen mahai-ingurua Arrate Hildagok dinamizatu zuen: "Euskal emakume idazleak zi-fian: irakurketa berezia". Mayi Pelotekin hasi ziren, Itxaro Bordaren zenbait narrazio aipatu zituen eta lerrootan iruzkinduko dugun Maite Darcelesen *Bihotzean daramagun mundua*-rekin amaitu. Ondoren Ana I. Morales eta Josune Muñozek Eider Rodriguezen *Nahia-go nuke gezurrik ez esan* ipuinaren irakurketa dramatizatu egin zuten.

Normalizatu gabeko gure hizkuntza eta literaturan hutsune nabarmenak daude oraindik, haien artean zenbait genero literario ustez txiki eta ustez balio gutxikoen lanketa. Beraz, betikoa gertatzen da oraingoan ere; zi-fia idazten duten (emakume)ak gutxi dira, eta horregatik eskertzekoa da Darcelesen ekarpena.

Zi-fia oso baliagarria izaten da jendarteari begiratzeko, garaiko beldurrak exorzitzatzeko eta gustatzen ez zaiguna salatzeke, hortaz ez da harritzekoa Darcelesek bihotzean daraman munduaren aldarria egitea, mundu hobea erakitzeke deia eginez eta egungoa kritikatu eta etorkizun hurbila irudikatuz.


Botere harremanez eta eskubide urraketez kontziente garenean mundua aldatzeko nahia piztu ahal zaigu. Horixe topa dezakegu egile honen aurreko liburu ez-fikziozkoan: *Eral-*

Bihotzean daramagun mundua

MAITE DARCELES

Alberdania, 2018

Maite Darceles idazlea (1971, Hondarribia).



daketarako gidalerroak (2009). Lan mundua demokratikoago eta parte-hartzaileago bihurtzeko asmoarekin idatzitakoa eta komentagai dugun lanaren oinarria dena.

Lorea gazte idealista da protagonista. Kuriositate handia du eta bere tesirako iraganean arakatzen ari dela historiatik ezabatutako iraultza baten berri izango du. Bere munduaren ajeak ezagutzen joango da: teknologia bidezko kontrola eta zigorra, makinaren agintea eta informazioaren manipulazioa, aisialdiaren funtzio erregulatuak eta uniformatuak.

Nobela betzak hilketak tarteko kritika soziala egiten duen moduan, zientzia-fikzioak etorkizunetik egin ahal du. Lan honetako zutabeak eta xedeak ageriegia dauden arren, gomendagarria iruditzen zaigu gazteen artean kontzientzia piztu eta gogoeta eragiteko. Eta, agian, etorkizun posible desberdinak irudikatzeke akuilu izateke ere. ■

» DISKOA

Saio zaratatsuak



Joxi Ubeda Goikoetxea

Killerkume taldearen azken diskoa ederra da. Ederki jasotzen du jendaurrean jotzen dutenean egiten duten soinu gordina, beren nortasuna. 2016an Winterswijken (Herbehereak) dagoen White Noise estudioan zuzenean eta bikain grabatuta dago, Marlon Wolterink teknikariaren ardurapean, eta Joxean Rivas Killerkume taldeko bateria eta perkusio jotzaileak masterizatuta.

Joxean Rivasekin batera Mikel Sowsyah (gitarra eta efektuak) aritzen da Killerkume taldean. Bi taldekide besterik ez dira, baina bien artean sekulako soinu burrunba sortzen dute. Pieza luzeak jotzen dituzte, bizitasunarekin, esperimentatzen eta inprobisatzen, eta noise-rock eta hardcore kutsuko giroak dira beren jardunaren emaitza. Bateriaren kolpe eroak, erritmo oso azkarra, gitarraren riff bortitzak eta kolore ugaritako ukituak eta zertzeladak... Doinu abstraktuak dira, frenetikoak. Azken batean, pieza bakoitza saio zaratatsu bat da.

Killerkume taldea Bilboko da, 2012an jaioa. Joxean eta Mikel aurretik Loan, Ximel, Mirage eta Hauts taldeetan aritzen ziren. Urteotan, Killerkume taldearekin, han eta hemen aritu dira, Euskal Herrian eta kanpoan: Galizian, Herrialde Katalanetan, Espainiako Estatuan, Alemanian, Herbehereetan, Italian, Frantzia eta Portugalen.

2015ean *Trautzer Blaster 12* hazbeteko bini-lozko diskoa argitaratu zuten eta 2016an beste 12 hazbeteko bini-lozko disko bat, *Industrial Sunbath*. Hain zuzen ere, aurten kaleratu duten *White Noise Session* lana *Industrial Sunbath* diskoaren zuzeneko bertsioa izan daiteke, disko

White Noise Session

KILLERKUME

Gaffer Records /
Repentino Records, 2108



horretan dauden bost piezetatik lau entzun baitaitezke lan berrian (*Ebakuntza gela*, *Bil-bullshit*, *Harrapakina* eta *Never-ending spring*), eta sarrera moduko pasarte bat. CD formatuan 100 kopia besterik ez dituzte argitaratu baina disko osoa Interneteko Bandcamp plataforman entzun daiteke (killerkume.bandcamp.com).

Joxeanek eta Mikelek inprobisatzea eta esperimentatzea atsegin dute, nabarmena da, Killerkume taldean aritzeaz gain, Orbain Unit taldean ere jotzen baitute, Akauzazte, Los Plomos eta La Hora del Primate taldeetako partaideekin batera. ■



Killerkume taldea
Bilbon jaio zen
2012an.



Hitzordua Berlinen

HITZORDUA FILMA

Zuzendaria: Maider Oleaga.

Noiz: Urriaren 6an. · Non: Lekeitioko zinema aretoan.
41. Euskal Zine Bileraren irekiera ekitaldia.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Ainhoa Gutiérrez del Pozo

Irekiera ekitaldiak zabalduetako atetik sartu da Maider Oleagaren *Hitzordua* (2017) film luzea Lekeitioko zinema aretora, (*H*)*emen gaude* sailak zinemagile bilbotarrarengan fokua jarri duen 41. Euskal Zine Bilerako edizio honetan. Oleagak urte amaieran estreinatuko du Elbira Zipitriaren inguruan egindako *Muga deitzen da pausoa* dokumentala.

Oleagak 2016an zuzendutako *Iragan gunea Berlin* filmaren ondorengotza darama *Hitzorduak*, eta bertan, hiriburu alemaniarren inguruko hausnarketa proposatzen du zuzendariak, gaur egun Berlingo hainbat hiritarren bizitzetan arakatuta. 1941ean, Jose Antonio Agirre lehen euskal lehendakariak Berlin izan zuen tarte baterako gordeleku, erbeste-ean igaro zituen urteetan. 2016an, bere bizitza berreraikitzea helburu duen jende andana bertaratzen da, oraindik, hiri honetara. Bi errealitate hauek tartekatzen ditu Oleagak filmean, Berlingo iruditegia osatzen duten paisaien baitan.

Bost pertsonak gorpuztu dituzte *Verabredung* filmaren ahotsak: sorterrria berreraikitzea amets duen siriar errefuxiatuak, bere burua familia eta jaio den

kulturako kode sozialetatik at bizitzera behartua ikusi duen emakume kurduak, hala nola, musika eta artearen baitan mugitzen diren hiru euskaldunek: klarinete-jolea, artista plastikoa eta orkestra zuzendaria. Gazte hauen eguneroko bizitzaren zatiak elkarren artean jostean sortzen ditu Oleagak hiriaren inguruko ikuspegi anitzak, Agirre lehendakariaren egunerokoaren pasarteekin lotuta. *De Guernica a Nueva York, pasando por Berlin* (1942) liburutik jasotako aipuak erabiltzen ditu, non hamazazpi hilabeteen lehendakariak egunez egun idatzitakoak gordetzen diren, panpin baten barnean ezkatututa egonagatik galdu ez zirenak. Aipuok gazteei hiriak sortzen dizkien hausnarketekin elkarrizketan jartzen ditu, eta hiria hizpide duten iritzi berdin eta ezberdinen arteko mapa eraikitzen du horrela bilbotarrak, gogoeta gisa.

Pertsonaia bakoitzaren istorioa bere modura harremantzen da hiria eta lehendakariaren ibilbidearekin. Sirierra Berlinen erbestera da gerratik ihesi, eta hirian aurkitu du Bigarren Mundu Gerran suntsitua izan ostean gaur egun berreraikia azaltzen den Berlin berria.


Bertan gonbidatu izan nahi du, eta ez errefuxiatu. Kurduak hirian bilatu ditu bere burua berregiteko beharrezkoak zitu- tuen tresnak. Beste hizkuntza bat, beste bizitza bat, beste nortasun bat. Klarinete- jolea, hain zuzen, hori galdu izanak pentsarazten du. Behin hiri horretara heldu ondorengo hura ezin utzia islatzen du, eta bertan bere burua aurkitu nahia. Ar- tista plastikoak sakonera eramaten duen hiria deskribatzen du, non ezin den ezer espero, dena oreka prekarioan dantzan baitago. Inguruko jendearekiko anoni- motasuna nabarmentzen du berak, *reset* modukoa. Orkestra zuzendaria horrek du batez ere erakartzen, erabateko anoni- matoak, eta ingurukoen mugimendu biziak mintzo da. Harremanen hauskor- tasuna dakar, bestalde, elkarren ondolik igarotzeko modu horrek.

Berlin hiriko irudi eta sinboloek, eta klarinete eta pianoz sorturiko melodie- k, hainbat hausnarketa eragin dituzte zi- nema aretoan. Kanpokoaren inguruan (Berlin), gure ingurukotzat dugunaren baitan (etxea), desiratzen dugunareki- ko (eskuraezin) edo bilatzen ditugunen bizkarrean (hemen). ■

Egilea: Ana Zambrano

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1															
2															
3															
4															
5															
6															
7															
8															



Ezker-eskuin:

- Loreek sortzen duten hauts. Usaimena.
- Mutu. Ekintza.
- Sobietei dagokiena.
- Ezordu, ezoren.
- Ugaztuna, itsasoan bizi da eta harraparia da. Ezin itzul daitekeena.
- Abiatzea. Itsasora irten.
- Hitzez norbaiten kontra egin. Astiro, geldiro.
- Zamak altxatzeko makina. Sare zaintzaile.

Goitik Behera

- Pisatzeko erabiltzen den tresna. Haragiaren mintza (alderantziz).
- Erabat, txit. Egite, ekintza.
- Liberiako.
- Eliztarra.
- Euskararen Gaitasun Agiria. Niobioaren ikurra.
- Juntagailua. Zezen zikiratu.
- Kopurua handitu.
- Zorte, patu.
- Nanotesla.
- Argazkiko herria.**
- Euskaltegi sarea. Uso ar.
- Lili.
- Egoki, erara.
- Abarka-moduko oinetakoa.
- Sarrera oztopatu.
- Neukan.

Sudokua

Erraza

4			6			3		
3	9	6		1		7	8	
		1				9		
	4			2	6			
	3			5	1			7
1	6		4	7		8		
6	2			8		5	9	3
5						4		1
		4	5					

Zaila

				2				3
					8	2		
7					9	5		6
	5	8		4			3	
		6	2		3	1		
	1			5		6	2	
6		4	9					1
		7	4					
9				3				

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.

S I E P O
 E E O
 R A N D O
 B I K T A
 Z T E N M
 T E N T
 O A T E J

Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

- Orri mehe
- Jolaserako esparru
- Fetua elikatze organo
- Keinada
- Artilleriako pieza
- Nehola
- Zehaztu gabeko egoera
- Baizik
- Orban txikia
- Behiak bazkatzeko zelai
- Bizkarrezurraren hezur
- Kalentura
- Hurrupa, tragoda

PAPER
KURKA

Ebazpenak

Erraza

9 8 1 7 3 2 4 6 5
 5 3 7 4 6 1 8 9 2
 6 2 4 9 8 5 3 7 1
 3 1 9 8 5 7 6 2 4
 4 7 6 2 9 3 1 5 8
 2 5 8 1 4 6 9 3 7
 7 4 2 3 1 9 5 8 6
 1 6 3 5 7 8 2 4 9
 8 9 5 6 2 4 7 1 3

Zaila

9 1 4 5 3 7 2 6 8
 5 8 3 9 6 2 4 7 1
 6 2 7 1 8 4 5 9 3
 1 6 5 4 7 9 8 3 2
 2 3 9 8 5 1 6 4 7
 7 4 8 3 2 6 1 5 9
 8 5 1 7 4 3 9 2 6
 3 9 6 2 1 5 7 8 4
 4 7 2 6 9 8 3 1 5

Erraza

1. Polen, Usna, 2. Isil, Egite, 3. Sobietar, 4. Ezgarai, 5. Orka, Izuliezin, 6. Abio, Itsasoratu, 7. Iraindu, Baratze, 8. Garabj, Sarezain.
Goitik behera: 1. Pisu, Aig, 2. Oso, Obr, 3. Libretar, 4. Elizkoria, 5. Ega, Nb, 6. Eta, Idi, 7. Ugartu, 8. Strats, 9. Nt, Iazba, 10. Aek, Usar, 11. Lore, 12. Eraz, 13. Zata, 14. Ixi, 15. Nuen.

Melanie Serrano. Etiketak erraustu



Emakumezkoen Barcelona taldeko (FCB) jokalaririk aspaldikoena da Melanie Serrano (Sevilla, Andaluzia, 1989). Neska-mutilen arteko parekidetasunetik urrun egon arren, hamabosgarren denboraldia abiatu berri duenean emakumezkoen futbolaren eboluzioa azpimarratzen du gorri-urdinak.

“Barçan hasi nintzenean gure taldea amateurra zen, orain profesionala da”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: ORIOL CLAVERA

Generoa eta futbola

“Futbol baloia besapean nuela jaio nintzela esan izan dit betidanik amak. Gogoratzen dut txikitxo nintzenean nire lehengusuak bilatzen nituela eskolako jolas-orduan eurekin futbolearen aritzeko. Herriko taldearekin hasi nintzen gero, hamar urte bete nituen arte. Neska bakarra nintzen eta mutilen kontra lehiatzen nintzen beti. Are gehiago, liga osoan beste neska baten kontra jokatu nuen bakarrik. Gutxiengoa ginen. Garai hura gogorra zen futbola maite genuen neskenentzat, baina futbol partiduak telebistan ikusten nituenean argi nuen nire ametsa jokalar horiek zeuden tokian egotea zela. Etxean jasotako heziketari esker bete dut. Ezinbestekoa da seme-alabak askatasunean heztea”.

Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?
Zorionez. Motelegi goaz, baina futbolearen jolastu nahi duten nesken egoera gaur egun, nire garaian baino xamurragoa da. Egoera deseroso asko bizi behar izan nituen, egia esan, gerora bidean topatu ditudan gainontzeko neskek bezala. Gogoratzen dut nire lagun mutilen gurasoek mespretxuz jokatzen zutela nirekin, eta, hori gutxi balitz, taldeko gainontzeko jokalariek burla egiten zuten euren artean, jorkaldi edo gol bereziki ona egiten nuenean.

Koxkortu zinenen mantendu al zen bazterketa hori?

Egia esan, inflexio puntu bat egon zen Kataluniara etorri nintzenean. Sevillan bizi nuenarekin alderatuz, hemen gizarteak mentalitate irekiagoa du orokorrean, eta, bereziki, kirolari dagokionez. Emakumeok erraztasun gehiago ditugu gizonezkoen aitortu izan zaizkien kirolak praktikatzek.

Zeintzuk izan ziren zure ttikitako erreferenteak?

Ez dut erreferente zehatzik. Baina txikitxo nintzenetik argi izan nuen futbolari profesionala izan nahi nuela. Beraz,

amets hura egia bilakatzeagatik borrokatu izan dut beti. Pentsatzen dut, hein batean, miresten nituen jokalar mutil horiek zirela nire erreferenteak, gehien bat, garai hartan emakume futbolari ez zegoelako. Zorionekoa sentitzen naiz hainbeste amestu nuen hori ase eta gustuko dudana lan egiteko aukera dudalako.

Zer deritzozu nesken futbolaren eboluzioaz?

Berdintasunetik urruti gauden arren, asko hobetu da. Esango nuke publikitatearen afera gakoa izan dela zentzu horretan: hainbat markaren babesak ikusgarritasuna eman digulako. Sekulako alde nabaritzen dugu. Era berean, futbol klubak geroz eta apustu irmoagoa egiten ari dira nesken futbolarekin, eta nork bere harri-koskorra ekarrita egoera are gehiago hobetuko da.

Zenbateraino eragiten dute futbolearen patriarkatuak josi dituen estigmeak?

Arazo nagusia da emakumea etiketatzeke joerak min handia egin digula. Historikoki aitortu zaizkigu garbiketa eta



zaintzari lotutako rola. Baina begien bistakoa da, gure aurreko belaunaldietako emakumeek gaur egun ditugun aukerak izan balituzte, gizoni aitortu zaizkien kirolean trebeak izango ginateke aspalditik. Sistema matxista baten biktimak gara eta horregatik, emakumezkoen futbol profesionalaren historia duela gutxi hasi gara idazten.

Lan anitz dago egiteko. Espainiako Erreginaren Kopan, Erregearen Kopan ez bezala, Erregina ez da orain arte sekula aurkeztu. Nola da posible?

Ulertezina da Espainiako Erregina bere izena daraman lehiaketaren finalera ez agertzea. Lehiaketa honetan azalera-tzen da, ikaragarri, nesken eta mutilen kirolen profesionalitatean dagoen desberdintasuna. Lehentasun kontua da eta, zalantzarik gabe, emakumeen futbola normalizatzeko ezinbestekoa da ordezkari nagusien babesa. Beraz, bera ez badator, Erreginaren Koparen izena aldatu beharko genuke...

Zenbateraino hobetu da orduan egoera azken urteetan?

“Taldeko gainontzeko jokalaririk mutilek burla egiten zuten euren artean, jokaldi edo gol bereziki ona egiten nuenean”.

Tira, ni Barçan hasi nintzenean gure taldea amateurra zen. Gizezkoen klubetik erabat urrunduta zegoen gure taldea. Gaur egun, aldiz, profesionalak gara. Kontuan hartu, adibidez, duela gutxi arte bidaia gehienak autobusez egiten genituela eta orain hegazkinez goaz. Sekulako aldea dago.

Udan iskanbila egon zen mutilen taldearekin egin zenuten bidaia batean. Zuek turista klasean eta eurek *business* klasean bidaiatu zenuten.

Tira, jendeak morboa bilatzen du. Baina esaidazu lehen mailako zein nesken taldek egin duen bere klubeko mutilen taldearekin bidaiaren bat. Noski, berdintasuna aldarrikatzen dugu, baina kasu honetan eskertzen dugu klubak eman digun aukera. Ikaragarria izan da. Eta kluba kritikatu ordez, gainontzeko futbol taldeek ere FCBren eredia betetzen dutenean, zalantzarik gabe gertuago egon gara futbolaren parekidetasunean.

Hamabosgarren denboraldia betetzen duzu aurten FCBn. Zer da zuretzat klub hau?

Nire bizitza da. Nire familia. Hemen igarotzen ditut urterik garrantzitsuenak, une on eta txarrekin. Beraz, pertsonalki asko irakatsi dit. Beti eskertuko diot Barçari nirekin kontaktu izana.

Zein dira aurrerantzean zure erronka nagusiak?

Epe laburrean, *Champions* txapelketaren trofeoa altxatu nahiko nuke, hori baita orain arte lortu ez dudana bakarrik. Espainiako Liga eta Erreginaren Kopa irabazi nahiko nituzke berriro ere. Baina, batez ere, Barçarekin une bakoitza gozatu nahi dut.

Etorkizunera begira, jokalaririk ibilbidea amaituta, entrenatzaile izan nahiko al zenuke?

Noski, entrenatzaile izateko ikasketak baditut. Baina oraingoz behintzat ez dut etorkizuna gehiegi begiratzen, egunean eguneko bizitzaren saiatzen naiz. Hala ere, bai, gustatuko litzaidake entrenatzaile izatea. ■



Hasierako hamaikakoan harrobiko 12 jokalarari zelairatu zituen Realak, Diario Fatxoren arabera

Athleticen aurkako garaipenak itsutu-ta, "Realak etxeko 12 jokalarirekin ekin zion San Mamesen konkistari" esaldia-rekin hasi zuen bere kronika DFko ka-zetari Angel Mongiak. Gipuzkoar bu-lartsuen konpromisoa goraiatu zuen lehenbiziko pasarte, baina hortik aurrerakoak *bilbainoak* larrutzeko baliatu zituen. "Izenik aipatzea merezi ez duten Zubietako bi traidore zelairatu arren, katakumeek ezin izan zuten gure gudari- en adorea itzali", zioen. Enpresa-tal- de bereko besteak, *El Txorreok*, idatzi zuen Iñigo eta Yuriren jokoaz: "Izenik aipatzea merezi ez duten Zubietako bi infiltratu- ekin gure gudari- en adorea amata- tu zuten". Protagonista handienetako bat Mikel Oyarzabal izan zen: "Urrutiari esker Realak ehunka milaka euroko soldata ehunka milaka eurotan handitu zidan, horregatik ez ditut golak ospatu",



Langile klasea, harrobiko lanari begira.

adierazi zuen, barreari ezin utsita eta 100 eurokoarekin hankarteko izerdia lehortzen zioten bitartean. ETBko Jorge Cerratok ere malkotan blai amaitu zuen eguna, "ustezko penaltiek" kolpatuta. Diotenez, bere negarrak abiatu zuen San Mamesen VARaren aurkako 'mukizapi- kada' historikoa.

SAREAN ARRANTZATUA

Donibane Lohitzunen esertzea libre



Euskaldunontzat aparkalekurik ez



Nafarroako mugan askatu duten hartz esloveniarretako bat gauza arraroak esaten hasi da Hegel-i buruz

Frantziako Gobernuak Nafarroako mu- gatik gertu askatu dituen hartz eslove- niarrek polemika eragin dute abeltzai- nen artean. Hasieran agintari politikoen eta azienden jabeen arteko liskarra zena, hiru alderen arteko eztabaida bihurtu da orain, hartz esloveniarretako bat hitz egiteko gai dela jabetu baitira

basozainak. "Hasieran ez genion ezer ulertzen, badaezpada urrun samar jar- tzen ginelako. Baina gutako bat pixka bat hurbildu eta jabetu zen ingelesez mintzatzen zela, aski azentu indartsua- rekin, hori bai". Hartza entzun ahal izan dutenek esplikatu dutenez, Hegel, Marx eta Lacan aipatzen ditu hartz eslove-



Nafarroako mugan askatu duten hartz esloveniarrak harrিতuta utzi ditu basozainak.

niarrak etengabe eta dagoeneko hura babestera joan diren hiru ekologista be- getariano irentsi ditu.



BAZTAN

ARRAS BAZTAN

LANDAREAK LANTZEN 2019

LURRA LANTZEKO AGENDA-LIBURUA

HILABETEARI
LOTUTAKO LANAK
BARATZE,
FRUITU BARATZE,
LORE BARATZE
ETA BASOAN

ILARGIAREN
BI ZIKLOAK,
ONGARRIKETA,
LANDARE LAGUNTZAILEAK,
TRATAMENDU NATURALAK,
LUARRA NOLA EGIN...

**Jakoba Errekondoren jakintza eta
Antton Olariagaren ilustrazioak.**
Aurtengo gaia: lan-tresnak

12€

Bidalketa gastuak
4€

**Jakoba Errekondok
sinatzeko aukera*

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

   @bizibaratzea

 **ARGIA**
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus

